

Haurrak sexualitatean hezten

Educando en sexualidad a niños y niñas



Argitaraldia:

2024ko udazkena

Edizioaren arduraduna:

Sortzen consultoría

Argitaratzaileak:

Gaztematika. Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sarea.

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzua.


Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua.

www.gipuzkoangazte.eus



AURKIBIDEA

1. SEXU-HEZKUNTZA HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDE GISA.....	4
○ Hitzaurrea.....	5
○ Lege-esparrua.....	6
○ Haurrak sexualitatean hezten.....	8
2. SEXUALITATEA HAURTZAROAN.....	9
2.1. Neure burua ezagutzen ari naiz.....	10
○ Gorputza/Nirea/Ni.....	11
○ Beste gorputz batzuk.....	14
○ Identitatea.....	20
2.2. Beste pertsona batzuk ezautzen ari naiz.....	25
○ Familia.....	26
○ Lagunak.....	31
○ Intimitatea eta pribatutasuna.....	33
2.3. Ingurune batean bizi naiz.....	36
○ Aniztasuna.....	36
○ Kultura eta gizartea.....	36
○ Kulturartekotasuna.....	37
○ Genero-rolak eta -estereotipoak.....	38
○ Hezkidetza.....	41
○ Sare sozialak eta internet.....	42
○ Pornografiari buruzko gogoeta aro digitalean.....	43
○ Haurren eskubideak eta sexu-eskubideak.....	42
○ Sexu-indarkeria haurtzaroan.....	44
3. HEZITZAILEEN ZEREGINA.....	49
3.1. Helburuak.....	50
○ Neure burua ezagutzen ari naiz.....	50
○ Nire harremanak.....	50
○ Kultura eta ingurunea.....	51
3.2. Oinarrizko printzipioak.....	52
3.3. Jarrerak.....	53
3.4. Hezitzaileen eta familien arteko harremana.....	55
4. BALIABIDEAK.....	57
○ Hezitzaileentzat.....	58
○ Haurrentzat.....	60
5. DINAMIKAK.....	64
○ Garapen ebolutiboa.....	65
○ Generoen arteko berdintasuna.....	75
○ Autoestimua.....	83
○ Desiraren orientazioa.....	89



1.

SEXU-HEZKUNTZA HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDE GISA

* Haurtxokoetako hezitzaileentzako sexualitateari buruzko material hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak (Haurrak, Nerabeak eta Gazteak Sustatzeko Zerbitzua) sustatzen du, eta Sexkuntza proiektuaren barruan kokatzen da.



Hitzaurrea

Haurtxokoetako hezitzaileentzako sexualitateari buruzko material hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak (Haurrak, Nerabeak eta Gazteak Sustatzeko Zerbitzua) sustatzen du, eta Sexkuntza proiektuaren barruan kokatzen da.

Haur, nerabe eta gazteentzako sexu-hezkuntzari buruzko **esparru kontzeptual bat garatzea** du helburu, hezkuntza ez-formalaren arloan eta ikuspegi feministatik, sexualitatea modu positiboan tratatu behar den bizipen integral eta osasungarri gisa ulertuta.

Sexualitatea bizitza pertsonalaren dimentsio bat da, hainbat ezaugarriren arabera (adina, sexua, testuingurua, sinesmen moralak, etab.) garatzen eta gauzatzen dena. Aniztasun horrek genero-identitate, -orientazio eta -adierazpen desberdinak ezarriko ditu: gorputzen, gaitasunen eta premien aniztasuna.

Sexualitatea pentsatzeko eta bizitzeko modua elementu garrantzitsua da identitate pertsonalaren definizioan eta pertsonen artean ezartzen diren harremanetan; baina sexualitateak dimentsio soziala eta esanahi kulturala ere baditu, eta presente dago sexualitatearen inguruko bizi-esperientzia eraikitzeke moduan.

Ildo horretan, giza eskubideen nazioarteko erakunde askok ezartzen dute haurrek, nerabeek eta gazteek beren genero-identitatea eta -adierazpena eta sexu-orientazioa errespetatuak izateko **eskubidea** dutela, nazioarteko araudian oinarritutako sexu-hezkuntza integral, zorrotz, zientifikoki sendo eta kulturalki sentikor batean sozializatzen eta hezten direla bermatuz.

Material honetan, **hezkuntza ez-formalaren** eremuan aplikatzeko elementuak landuko dira, bere malgutasunagatik gai hau lantzeko aukera asko eskaintzen baititu, berdinen arteko bizikidetzak eta modu dibertigarrian ikasteko interakzioak aprobetxatuz. Gainera, bitartean, haurrak ongizatearekin, desirarekin, gozamenarekin, autozaintzarekin eta beste pertsona batzuen zaintzarekin, autonomiarekin, baimenarekin, mugekin eta abarrekin lotutako gaitasunak eta balioak eskuratzen dituzte.

Material hau **Gaztematika Sarearekin** eta Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteentzako hezkuntza ez-formaleko zerbitzuetan sexu-hezkuntza lantzeko esparru kontzeptual baten definizioarekin hasitako bideari jarraitzeko asmoz sortu da. Eta haurren zerbitzuetako hezitzaileekin eta sustapeneko teknikariekin kontrastatzean, aberastu egingo da, haien esperientziak, ezagutzak eta praktikak txertatuz.

Bost atal ditu:

- Lehenengoak erreferentzia-esparru juridiko bat eskaintzen du, eta bertan haurren sexu-hezkuntza eskubidetzat hartzen duten hainbat araudi edota adierazpen instituzional aurkezten dira. Esparru hori azaltzen da, egungo testuinguruan hainbat sektorek eskubide hori zalantzan jartzen dutelako, edo sexu-hezkuntzaren ardatza ugalketarekin zerikusia duten alderdiak izatea eta eta nerabezarotik aurrera ematea nahi delako.
- Bigarren atalean haurtzaroko sexualitatearen ezaugarri nagusiak azaltzen dira, hala nola autoaurkikuntza, haurrekin beren ingurunetik sortzen diren harremanak eta egungo kulturak gai horri heltzeko nola heltzen dion.
- Hirugarren atalak hezkuntza-taldeek zeregin horretan duten funtzioa azpimarratzen du.
- Laugarren atalean, gai hori haurrekin lantzeko baliabide egokien zerrenda ematen da.
- Azkenik, bosgarren atalak gaia lantzen eta taldean parte hartzen lagun dezaketen dinamikak proposatzen ditu.

Azken zatian glosario bat dago, gai honen terminologia espezifikoa jasotzen duena.

Sexualitatea gorputzari dagokio, baina baita emozioei eta sentimenduei, ideiei eta aurreiritziei, erabakiak hartzeari, mota guztietako aniztasune, harremanei eta familiei ere. Hori guztia haur eta nerabeei alderdi horiei buruzko jakin-mina erakusteko aukera emango dien espazio seguru batean landu behar da; eta horrek, halaber, erantzunak aurkitzea ahalbidetu behar die norbere askatasunetik eta besteenarekiko errespetutik beren sinesmenak osatzeko.

Lege-esparrua

Haurrek, nerabeek eta gazteek sexu-hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.

UNESCOk sexu-hezkuntzari buruzko deskribapenean azpimarratzen du horrek berekin dakarrela «sexualitatearen alderdi kognitibo, emozional, fisiko eta sozialei buruz irakatsi eta ikastea». Horren helburua da haur, nerabe eta gazteei honako hauetarako gaituko dituzten ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak ematea:

- beren osasunaz, ongizateaz eta duintasunaz jabetzeko;
- errespetuzko harreman sozialak eta sexualak garatzeko.
- beren erabakiek norberaren eta besteen ongizatean nola eragiten duten balioztatzeko;
- eta bizitza osoan beren eskubideak ulertzea eta babestea bermatzeko.

Horregatik, *Orientaciones técnicas internacionales para la educación en sexualidad*¹ dokumentua erreferentea izan da material honetan guztian, haur, nerabe eta gazteentzako sexu-hezkuntza sustatzea ez baita ateraldi bat edo inposizio bat, baizik eta eskubide bat betetzen dela bermatzea. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren zerbitzura dagoen erakunde publiko gisa, bere eginbeharrak betetzen ditu indarrean dagoen araudiaren araberrako materiala ematean.

Nazioartean, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak², emakumearen aurkako indarkeria-mota guztiak ezabatzeari buruzko³ Nazio Batuen Konbentzioak eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak⁴ sexu-hezkuntza haurren, nerabeen eta gazteen eskubidetzat hartzen dute.

2030 Agendak eta Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJH)⁵ formulazio batzuk jasotzen dituzte beren helburu eta jomugetan, eta formulazio horietan sexu-hezkuntzak izan behar du haiek lortzeko funtsezko tresnetako bat.

Europar, Giza Eskubideei buruzko Europako Gutun Sozialak⁶, Haurrak sexu-esplotaziotik eta -abusuetatik⁷ babesteko Lanzaroteko Hitzarmenak eta Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari eta bere aurka borrokatzeari buruzko Istanbulgo Hitzarmenak⁸ ere aipatzen dute eskubide hori.

Espainiako Estatuan indarrean dauden zenbait legek ezartzen dute sexu-hezkuntza horren beharra: 1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriena⁹; 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurka Osorik Babestekoa¹⁰; eta 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu-askatasunaren berme integralarena¹¹.

Autonomia-erkidegoan, 2/2024 LEGEA, otsailaren 15koa, Haur eta Nerabeen Euskal Legea nabarmendu behar da.

¹ <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000265335>

² <https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/convention-rights-child>

³ <https://www.inmujeres.gob.es/elInstituto/normativa/normativa/docs/convencion.pdf>

⁴ <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1977-10734>

⁵ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

⁶ <https://www.coe.int/es/web/compass/european-social-charter>

⁷ <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2010-17392>

⁸

<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/marcoInternacional/ambitoInternacional/ConsejoEuropa/Normativa/home.htm>

⁹ <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2004-21760>

¹⁰ <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2021-9347>

¹¹ <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-14630>

Haurrak sexualitatean hezten


Sexu-hezkuntza haurtzaroan hasi behar da.


Haurtzarotik afektibitateko eta sexualitateko hezteko osasunaren, ongizatearen eta garapen pertsonal eta sozialaren aldeko apustua egitea da.

Hezkuntza hori askatasuna eta erantzukizuna bultzatzen eraginkorra izan dadin, adina izango da haurren sustapen-zerbitzuen abiapuntua; hau da, aitortuko da sexualitateak eboluzionatzen duela eta nesken eta mutilen kezkei lagundu egin behar zaiela, haien garapen psikosozialaren arabera. Horregatik, material honetan hiru adin-tarte bereiziko dira: 5 eta 7 urte; 8 eta 10 urte eta 11 eta 12 urte.

horietako bakoitzean hiru lan-arlo bereiziko dira:

- Pertsonala
- Erlazionala
- Soziokulturala eta, bertan, ingurune hurbilena





2.

SEXUALITATEA HAURTZAROAN

Hurtzaroa esploratzeko, esperimintatzeko eta deskubritzeko unea da. Aro desberdinetan garatzen da haurrek beren gorputzarekin, haren esanahiekin eta leku sinbolikoarekin, beren erreferentzia-taldeekin – familia, lagunak, eskola – eta ingurune hurbilenarekin duten harremana.

2.1. Neure burua ezagutzen ari naiz

Nor naiz? Zergatik aldatzen da nire gorputza? Zergatik da nire gorputza desberdina? Zergatik ezin naiz hondartzan biluzik ibili hain dibertigarria bada? Zergatik begiratzen didate?

5 eta 12 urte bitartean biziki bizitzen, hazten, ikasten, pentsatzen, hitz egiten... da. Dagoeneko autonomia garrantzitsua lortu da mugikortasunarekin, hizkuntzarekin eta esfinterren kontrolarekin, eta identitate pertsonala eraikiko da. Oinarrizko eskuratze psikologikoa da, haurrei testuinguru jakin batean berezko definizio-prozesu konplexu bat eginez munduan kokatzeko aukera emango diena.

Identitate pertsonala **pertsona bat definitzen eta besteengandik bereizten duten** ezaugarrien, jarrerren, gaitasunen eta trebetasunen multzo gisa ulertuko dugu.

Identitate hori ez da hutsean sortzen, ezta ere bulkada biologikoen bidez bakarrik. Haurraren eta hura hezten eta sozializatzen duten pertsona helduen arteko interakzioaren emaitza da. Zentzu horretan, **identifikazio kolektiboko** dimentsio bat du, hau da, haur bakoitza banaka bereiziko da, baina baita talde baten zati gisa ere (sexuaren, generoaren, ezaugarrien, hitz egiteko moduen, larruazalaren kolorearen, hazten ari den familia motaren eta abarren arabera), eta portaera kolektibo horietako batzuk bilduko ditu.

Lan egingo dugun haurtzaro horren lehen urteetan aldaketa handiak izango dira urtez urte nortasun pertsonal hori eskuratzean, eta ikusiko dugu haurra bere hezkuntza eta sozializazioa egiten duten inguruko pertsonekin harremanetan nola jartzen den. Ikusiko dugu jasotako mezuak zalantzan jartzen dituzten bihurriak, eztabaidatu gabeko aginduei men egiten dietenak, itxuraz obeditu baina benetan nahi dutena egiten dutenak... Inguruneak, testuinguruak eta beste pertsona batzuekiko interakzioek eragin zuzena dute nortasun pertsonalaren garapenean eta haurrek beren buruaz eraikitzen duten iritzian, hurbilenekoek eskaintzen dioten irudian oinarritzen baita.

Identitate pertsonalak/kolektiboak haurtzaroan ditu oinarriak, baina bizitza osoan zehar konplexuagoa izaten jarraituko du, igarotzen diren esperientzietan oinarrituta. Bizitzaren etapa honetan, autokontzeptuaren, autoestimuaeren eta autoirudiaren garapena behatuko dugu.

Prozesu horretan guztian funtsezko zeregina izango dute gorputzak eta gorputzaren garapenak. Ikus ditzagun bi alderdi horietan garrantzitsuak diren ezaugarri batzuk, definitu ditugun hiru adin-taldeen arabera. Talde horietan, gorputzaren autoaurkikuntza eta autoerrekonozimendua prozesu nagusiak dira.

■ GORPUTZA/NIREA/NI

5 eta 7 urte artean



Aro honetan garrantzitsua da haurrek:

- Gorputzaren kanpoko atal guztiak izendatu ahal izatea.
- Jakitea gorputza aldatuz joango dela, eta itxura ere bai.

Autoirudiaren garapenean (neure burua nola ikusten dudana) eragina du kanpotik ikusten nauten moduak eta barneratzen den begirada arrotz hori autokontzeptuaren (nor naizen) eta autoestimuaeren (neure buruarekin nola erlazionatzen naizen) parte izango da.

5 urtetik aurrera jabetzen gara gorputzeko zer atal ez diren aipatzen ezta ukitzen ere. Genitalek funtsezko tokia hartzen dute, bai generoa definitzeko, bai talde bereizi batean kokatzeko, bai ukitzean sortzen dituzten sentrazioak eta noiz eta non izendatu eta ukitu daitezkeen jakiteko.

Hori kontuan hartuta, haurrek behatzerakoan erabiltzen dugun begirada helduaz jabetzea gomendatzen da; izan ere, batzuetan gorputzak pizten dizkien sentrazioak (gorputz-erreferente bat dutenak) eta emozioak (gorputzaren zati zehatz batean kokatzen ez direnak, baina bertan adierazpenak dituztenak) jasotzeko iragazkia da. Baliteke sentrazio horietako batzuk komunikatzeak gu harritu edo deseroso sentiaraztea; dibertitu ere egin gaitzakete eta samurtasuna piztu.

Autoirudia positiboki indartzea funtsezkoa da. Beste gorputz batzuekiko alderaketak –prozesu saihestezina- aniztasunean eragin behar du, eta ez hierarkian. Garrantzitsua da haurrek gorputzaren ataleu ematen dizkieten izenak eta formak jasotzea, eta, aldi berean, guk beste batzuk eskaintzea.

Normala da beste gorputz batzuk ikusteko eta haien funtzionamendua ulertzeko jakin-mina izatea, baita gorputz horien bidez senti daitezkeen sentrazioak ezagutu nahi izatea ere, bai bakardadean, bai lagunartean. Gorputzen sentipenak, plazerak eta anatomia zabala aberastasunaren eta aniztasunaren ikuspegitik jasotzeak, antzeko dugun guztiak bezala, norberaren eta besteen nortasuna garatzen eta onartzen laguntzen du.



Hausnartzeko portaera:

Julenek (5 urte) zakila batzuetan gogortu egiten zaiola ikusi du. Fenomeno horrek harritu egiten du, ez du ulertzen zergatik gertatzen zaion. Hori pasatzen den bakoitzean galtzak jaitsi eta inguruko jendeari erakusten dio, erantzun baten bila. Zer egingo zenuke kasu horretan?

8 eta 10 urte artean

honek gorputz-kontzientzia handiagoa du bereizgarri. Gorputz-adarrak hazi egiten dira, eta haur txikien gorputza jada ez dago hor; gorputz deskoordinatu bat dago haren lekuan. Salbuespena izan daiteke, baina neska batzuk adin horretan has daitezke bigarren mailako sexu-ezaugarriak garatzen, eta baten bati hilekoa ere etor dakioke. Aldaketa gehiegi neska txiki horrentzat!

Fase honetan, erantzun sakonagoak eman behar zaizkie sexuari eta sexualitateari buruzko galderei. Haurtzarotik nerabegarora igartzeko adin horietan gertatzen diren gorputz-aldaketak ulertzeko beharraren ondorioa da hori.

Garatzeko modu eta denbora desberdinak eta garapen horretatik sortzen diren gorputz ezberdinak jakin-minaren objektu izan daitezke, baita arbuiatuak ere. Arreta handia jarri eta gorputz guztiak normalizatu behar dira; erne egon behar da ezaugarri orokorrekin bat ez datozen eta iseka eta arbuioa jasan dezaketen haurren aurkako jazarpen-kasuen aurrean.



Ene, hau lotsa!

Laylari (9 urte) ile beltz batzuk atera zaizkio besapeetan. Lotsa ematen dio, berak hain itsusi ikusten dituen ile horiek atera zaizkion bere taldeko lehen neska delako. Hainbesteko lotsa ematen dio, non udan mahuka luzea erabiltzen baitu ikus ez dezaten.

Zer egingo zenuke Laylari laguntzeko?

10 eta 12 urte artean

Aro honetan gorputz-aldaketak presentzia handia izaten hasten dira: altuera, ahotsa, gantz-banaketa, gorputzeko ilea... Haur guztiei gertatuko zaizkie, baina bakoitzari bere erritmo eta moduan.

Garrantzitsua da modu naturalean hitz egitea gorputzean hasiko zaien prozesuaren faseei buruz eta heldu egiten ari diren gorputzen aniztasunari buruz, arreta batez ere gehien aldatuko diren alderdietan jarritz: aurpegiko eta gorputzeko ilea, bularrak, aldakak, genitalak, osaera fisikoa, trebetasun motorrak.

Gainera, orain bai, orokortuagoa izango da hilekoa eta eiakulazioa bezalako prozesu fisiologikoen agerpena.


Batzuetan zaila da aldaketa horiek ulertzea eta are gehiago onartzea. Onartzea oso beharrezkoa da. Genero-identitatearen gaia aurrerago garatuko dugun arren, aipatu behar da adin horretan neskek jada ikasi dutela, nagusi den ereduaren eta tradizioaren arabera, eder egon behar dutela onartuak izateko; eta beste neska-mutil batzuen begirada funtsezkoa izango da haientzat. Aldiz, mutilek jada ikasi dute, berriro ere, arketipikoki, boterea dutela garapen berantiarragoa edo askotariko gorputzak dituzten neska guztiak nahiz mutilak kalifikatzeko eta deskalifikatzeko.

Oso garrantzitsua izango da gorputzei eta haien funtzioei buruz hitz egitea, bai eta nerabezaroaurreko gazte bakoitzak alde horretatik izan ditzakeen bizipenei buruz ere; betiere, gorputzen aniztasun zabaletik abiatuta.

Aipatu diren gorputz-aldaketa horiek autoirudiari, autokontzeptuari eta autoestimuari eragin diezaiekete, eta beren adineko beste pertsona batzuekiko alderaketan onarpena edo arbuioa eragin dezakete; horregatik, funtsezkoa da gorputzen aniztasuna ikusaraztea eta normalizatzea eta hizkuntza positiboa eta inklusiboa erabiltzea.

Lehenengo hilekoa:

Aneri (11 urte) hilekoa etorri zaio. Bere inguruan lehena da, eta zalaparta sortu du bere lagun-taldean. Badirudi hilekoaren ideia lausoa dutela, baina mitoren bat errepikatzen entzun diezu (adibidez, hilekoa pixaren zulo beretik ateratzen dela). Zer egin zenezake taldearen zalapartari aurre egin eta Aneri kasu egiteko?





■ BESTE GORPUTZ BATZUK

Norberaren gorputzaren jakin-minaz gain, haurtzaroan zehar besteen gorputzek ere interes eta jakin-min handia pizten dute. Etapa guztietan, haurrak hainbat modutan erlazionatzen dira hurbileko gorputzekin. Hezitzaileek ziurtatu behar dute hurbilketa horrek beti izan behar duela gorputz horien aniztasunarekiko errespetutik eta pertsona bakoitzak ezartzen dituen mugetatik eta pertsona helduek irakasten dituztenekiko errespetutik. Hau da, hurrek ikasi egin behar dute bereizten zein alditan ez den sozialki onargarria beren gorputza jendaurrean ukitzea edo beste gorputz batzuekin elkarreragitea; era berean, gai izan behar dute modu pertsonalean ezartzen diren mugak ezagutzeko eta beren gaitzespena gauzatzeko *Ez esanez* eta *Ez hori onartzen* ikasteko, beste zalantzan jarri gabe eta azalpenik eskatu gabe.

Eta gorputza ez ukitzeaz ari garenean, genitaletan ez ezik, gorputzeko atal guztietan pentsatzen ari gara. Adibidez, pertsona zuri askok jakin-mina sentitzen dute afrikarren eta afrikar ondorengoen ilearen ukimenaren inguruan, haien forma eta sendotasuna ez datozelako bat; hala ere, baimenik gabe ukitzea errespetu falta handia da, eta onena da baimena eskatzen irakastea beste pertsona bat ukitu aurretik.

Besteen gorputzak aurkitzeko prozesua norberaren gorputza aurkitzearekin batera gertatzen da, eta aurkikuntza horiek sortzen dituzten emozioak asko eta ezezagunak dira. Hurrek beren emozioak gorputzaren atalekin batera izendatzen ikasten dute, eta garrantzitsua da horiek bereizten eta adierazten irakastea, atseginak direnak nahiz frustrazioa sortzen dietenak kudeatzen ikas dezaten.

Sexualitatearen hezkuntza ez da gorputzaren anatomia edo fisiologia mota bat, beste dimentsio batzuk ditu, bai sentipenei dagokienez, bai jokabideetan adieraziko diren emozio eta ideiei dagokienez. Jokabidea heztea ez da mugatzen ondo dagoena edo ez dagoena esatera. Haur bakoitzaren adinaren arabera, bere gorputzetik, burutik eta emozioak kokatzen diren aldetik gertatzen ari dena azaldu behar da.

5-7 urte

Haurrak beren anatomiaren zatiez jabetzen hasten dira, beren genitalak bereizten dituzte, beste batzuekin alderatzen dituzte. Neskak konturatzen dira mutilek zakila eta neskek bulba dutela, eta aurrerago izango ote duten jakin nahiko dute. Baliteke horri buruzko ideia batzuk izatea, beti dibertigarriak ez direnak, eta baliteke genitalen izenak ere erabiltzea, barregarriak izan daitezkeenak, baina iraingarriak ere bai.

Garrantzitsua da neskatoei esatea bulba dutela, zakilik ez dutela esan beharrean, eta alderantziz, eta beren izenekin izendatzea. Gabezia-sentsazioak ondorio desberdinak ditu, eta ez beti positiboak. Irakatsi behar zaie, halaber, beren gorputza eta atal guztiak hazi eta aldatu egingo direla, eta ez dituzten eta agian izango ez dituzten gorputzeko atalek ez dutela beren balioa gutxitzen.


Norberaren eta besteen gorputzekiko jakin-minak hainbat bide har ditzake:

- **Ikusi.** Haurrek deigarri gertatzen zaiena ikusi nahiko dute. Horrela, arrunta izan daiteke jakin-mina sortzen dieten gorputzen atalak estalirik gabe behatzea.
- **Galdetu.** Adin horretan, gorputzeko zer atal saihesten diren bereizteko gai dira, bai kontaktu fisikoan, bai hitzeko hizkuntzan. Horregatik, baliteke gorputz-aniztasunari buruzko galdera zehatzak egitea (batez ere genitalei buruz). Estrategia lagungarria izan daiteke haien galderei beste galdera batekin erantzutea. Horrela, hobeto jakingo dugu beren jakin-mina nora bideratuta dagoen, eta behar duten informazioa eman ahal izango diegu. Garrantzitsua da ematen dizkiegun erantzunak argiak eta eufemismorik gabekoak izatea; hala, etorkizunean sexualitateaz hitz egiteko tresnak eta hiztegia eskuratu ahal izango dituzte.
- **Ukitu.** Baliteke gorputzeko atal horiek edo deigarri gertatzen zaizkien gorputzak ukitzeko bulkada sentitzea. Oso garrantzitsua da barneratzea ezin dela inor ukitu bere baimenik gabe, beren baimenik gabe inork ukitu ezin dituen moduan.

Ukitzea edo ez ukitzea:

Ikerrek (6 urte) asko begiratzen die hezitzaileen bularrei. Oso deigarriak egiten zaizkio, eta begirada inguru horretara joaten zaio haiekin hitz egiten duenean. Duela gutxi hezitzaile bati bularra ukitzen saiatu zen.

Zer esan diezaiokezu Ikerri?



Mundu emozionalari dagokionez, adin-tarte horretan beste haur batzuekin harremanak izaten hasten dira eta, beraz, esperientzia afektibo gehiago sortuko dira, emozioen mundua konplexuagoa eginez eta, atseginak ez badira, doluak, mina edo frustrazioa eragiten dieten esperientzien kudeaketaren aurrean jarriz. Beraz, garrantzitsua da bizi ditzaketen esperientzia mingarriei muzin ez egitea, baizik eta laguntza-gune bat ematea, esperientzia horietatik bizitzarako beharrezkoak diren ikaskuntzak eta tresnak ateratzen ikasteko.

Beren arazoak konpontzeko motibazioa eman behar zaie eta, beren helburuak lortu edo ez, ahalegina aitortu eta balioztatu behar zaie.

Bikotekiderik gabe eta zergatia jakin gabe:

5-7 urteko haurrak hasi dira «parekatzen», eta «bikote» direla esaten. Badirudi guztiek dutela «bikotekidea», Zuhaitz izan ezik. Triste dago gustatzen zaion pertsona beste batekin parekatu delako.

Zer egin dezakegu Zuhaitzen alde?



Adin horretan, besteen gorputzetako genitalekiko jakin-mina areagotu egiten da, normala da haurrek beren genitalak erakustea beste haur batzuei, banaka edo talde txikitan, edo jolas horretan parte hartzen dutenek arropa kendu eta parte hartzen dutenei arropa kentzea, oso dibertigarria izan baitaiteke, nahiz eta badakiten ezin dietela esan zer egiten duten inguruko heldu guztiei.

Berriz ere, garrantzitsua da beren inguruko pertsonen mugak detektatzen eta errespetatzen laguntzea. Lagungarria izan daiteke beren gorputzak besteenekin alderatzen dituzten intimitate-espazioak errespetatzea, eta hezkuntza-material osagarriak ematea, beren zalantzak argitu ahal izateko (komikiak, liburuak, bideoak).

Erakutsiko didazu?

8 eta 9 urteko neska eta mutil-talde txiki bat aurkitu duzu komunean, elkarri genitalak erakusten.

Zer egin zenezake egoera horretan?

Adin horietan, emozioak ere konplexuagoak dira, eta horiek adieraztea zailagoa izan daiteke, batez ere aurrekoan hezkuntza emozionalik izan ez bada. Baliteke beren gorputzak eta besteenek eragiten dizkieten emozioekiko erreserba handiagoa egotea, nahiz eta, aldi berean, heldutasun handiagoa eta gertatzen zaienarekiko interes gehiago izan. Ez da erreserba axolagabekeriarekin nahastu behar; batzuetan ez dute galdetzen modurik onenean nola egin ez dakitelako edo beren galderak ondo hartuak ez izateak beldurtzen dituelako.

Norberaren gaitasunekiko konfiantza bezalako balioak garrantzitsuak dira beren sexualitateari buruzko emozioak eta zalantzak adieraztera animatzeko.

Lagunak gero eta garrantzitsuagoak dira, eta horretan sortuko dira koadrilak, nerabeen eta gazteen bizitzaren zati handi batean bidelagun izango dituztenak. Lankidetzan aritzea eta beste pertsona batzuei laguntzea enpatia eta talde bateko kide izatearen zentzua adierazteko modu bat izango da eta, horregatik, garrantzitsua da pertsonenganako errespetua lantzea eta haien gustu eta iritzien zergatia ulertzen saiatzea. Erakutsi beharko zaie jokabide eta iritzi guztiak ez direla errespetagarriak, baina bai pertsona guztiak.

Mugatzen duen aldea:

8 urteko mutilak borrokan hasi dira, baina Naseemi (gurpil-aulkian doa) zaila egiten zaio jolas horretan integratzea. Naseemen tristura eta frustrazioa nabariak dira hezitzaileentzat. Nola esku har dezakegu taldean?



10-12 urte

Fase honetan, beren sexualitatea aztertuko dute berdinen arteko jolasaren bidez. Gainera, pertsona biluzien irudiak edo sexu-eszena inplizitu eta esplizituak ikusteko jakin-mina erakusten hasiko dira. Horrela, besteen gorputzekiko jakin-mina asetzen dute. Ikerketa berriek diotenez, haur askok pornografia ikusi dute adin horretan, baita aurrekoetan ere. Pantaila bidezko sozializazioak ondorio hori du.

Irudi edo eszena pornografikoak ikustea falta den sexu-heziketaren ordezkotzat bat da, eta garrantzitsua da gaiak hitz egitea, fikzioa dela erakustea eta, batez ere, emakumeen gustuei buruz ematen dituen mezuak okerrak direla. Nolanahi ere, hezitzaileek mentalitate irekiarekin eta adoltozentrismoarekin gabe ekin beharko diote esplorazio horri. Garrantzitsua da haurrak gorputzen aniztasuna errespetatzeko eta pertsonak ezartzen dituzten mugak errespetatzeko hezteak. Une egokia izan daiteke, halaber, sexu-jokabideez eta praktika ez-kutsakorrez eta ez-sorgarriez hitz egiten hasteko, bai eta infekzio eta sortzeen prebentzioaz eta babesaz hitz egiteko ere. Gainera, sexualitateari eta sexu-harremanei buruzko informazioa bilatzeko baliabideak ere eskaini dakizkieke.

Egingo dugu?:


Jonek eta Uxuek (10 urte) «etxetxo» bat egin dute koltxonetekin. Barruan, musuak eman, laztandu eta sexu-harremanak izateko itxura egiten dute, film batean ikusi duten bezala. Zer egin daiteke kasu horretan?



Etapa honetan hasi dira ongizatea subjektibizatzen, hau da, ongi edo gaizki sentitzen eta hori adierazten eta, horrez gain, ukatu edo saihestu egiten dituzte kontrakotasuna eragiten dieten emozioak, eta presioa ere egiten dute beste pertsonak beren nahiak zapuztu ez ditzaten.

Antsietatea, beldurra, lotsa, errua, suminkortasuna eta haserre bizia ohikoak izaten hasten dira nerabegarora doazen haur horien emozio-errepertorioan, eta ikaskuntzan oztopo izan daitezkeen jokabide disruptiboak eragin ditzakete.

Tarte horretan bereziki zaindu behar dira autoestimua eta norberaren nortasuna definitzeko prozesua: lagun minak, besteekiko konparazioa eta interesa, baita trebetasun eta lotura sozialak ere.



Hazi nahi duen txikia:

Shaimaren gorputza (12 urte) bere kideena baino denbora gehiago behar izaten ari da garatzeko. Taldeko txikiena da eta bere gorputzak ez du pubertaroarekin lotutako aldaketarik jasan. Horrek haserre, lotsa, frustrazioa eta segurtasunik eza sortzen dizkio, gainerako lagunak bezalakoak izan nahi duelako.

Nola landu dezakegu gaia?

Emozioak heztea sexu-hezkuntzaren parte da

Gogoratu

Emozioak pertsona bakoitzaren autoezagutzaren alde handi bat dira eta, beraz, behar duten lekua eman beharko zaie haurtxokoetan ulertuak eta lagunduak izan daitezten; horrela, ahalik eta kudeaketa emozional osasungarriena egiteko tresnak landuko dira.

Gai honi dagokionez, haurtxokoetara hurbiltzen diren haurren kudeaketa emozionalean laguntzea eta babestea izan behar du hezitzaileen zeregina. Ez dago emozio onik edo txarrik. Emozioek elkar ulertzen eta gertatzen zaiguna konprenitzen laguntzen dute, nahiz eta batzuetan ondoeza sortzen duten, gertatzen ari dena gustatzen ez zaigulako.

Frustrazioa edo esperientzia mingarriak saihestu edo horietatik oso azkar igaro beharrean, bizitzarako beharrezkoak diren tresnak emango dizkieten ikaskuntzak ateratzen saiatu behar da. Beraz, mina eta frustrazioa munduari aurre egiteko gaitasun bihurtzen laguntzea eta sendotzea da gakoa. Haurtzaro zorionsuaren ideia, ideia txarra da, ez delako errealia eta ez dielako haurrei hazten laguntzen.

Horren orde, ulermena eta autozainketa bilatu behar ditugu. Triste egonez gero edo lagun triste batengandik hurbil egonez gero, hori adierazten jakin beharko da, eta baita pasatuko dela ere. Amorrua izanez gero edo amorrua duen lagun batengandik hurbil egonez gero, garrantzitsua da hori kudeatzea eta pertsonaren izaera-bereizgarri edo kalifikatzaile ez bihurtzea.



■ IDENTITATEA


Orain arte, neskek eta mutilek sexualitatean izan duten garapen ebolutiboaren ezaugarrietako batzuk ikusi ditugu, baina unea da beste dimentsio garrantzitsu bat eransteko: **generoa**, hau da, hainbat elementutan oinarrituta eraikitzen diren identitate-, gizarte-, kultura- eta portaera-alderdiak, besteak beste, sexuaren eta genitalen araberako genero-esleipena.

Generoa ezagutzaren hainbat arlotatik garatutako kontzeptua da, eta arlo horietan haren osagaiak aztertu dira. Lehen genero-azterketek eredu binario bat garatu zuten, hau da, bi eskema identifikatu ziren: emakume-femeninoa, gizon-maskulinoa.

Eskema horrek, pertsonak binarismo zurrun batean finkatzen dituen eredu sozial bat eraikitzeko baliagarria izanik, kanpoan uzten ditu sexua –alderdi biologikoak–, generoa –alderdi psikosozialak–, genero-adierazpena –itxura eta portaerak–, genero-rolak –eskuduntza sozialak–, eta sexu-orientazioa

–desiraren joera– konbinatzeko modu ugari, sexu-genero binarismoarekin bat ez datozen pertsona guztiak baztertuz, beren izateko, sentitzeko eta jokatzeko moduak ukatuz, baztertuz edo patologizatuz.

Ikuspegi konplexu batetik, beraz, sexu-genero-sexualitatea binarismoak nola funtzionatzen duen ulertu behar dugu, hau da, hurrengo eskema eta honek giza aniztasuna barneratzeko dituen mugak.



Iturria: Nahia taldea (2014)

Gizarte-arau binarioak eredu zapaltzaile bat eraiki du, eta horren arabera sozializatu dira haurrak. Arau horrek sortzen ditu bazterketak eragiten dituzten patologiak, eta berak mugatzen du pertsonen sexualitatea haurtzarotik.

Sexu-hezkuntzak, askea izateko, giza aniztasuna aitortu, izendatu eta errespetatu behar du.

Sexu-heziketa osasungarriak identitate desberdinak ez patologizatzea dakar.

Genero-identitatea

Genero-identitatea sinesmen ideoafektibo bat da, eta pertsona bat neska edo mutil gisa identifikatzera edo definizio binario horietara egokitu nahi ez izatera eta pertsona ez-binario edo genero jariakorreko pertsona gisa definitzera eramaten du.

Genero-identitatea sentimendu sakona da, eta ikaskuntza inkontzientearen ezagutza handia du, bizitzako lehen urteetan garatzen baita. Identitate horrek pertenezia-zentzua ematen du, eta, behin hori eskuratuta -hau da, pertsona bat giza talde batekin identifikatzen denean-, bizitza osoan iraungo du –nahiz eta haren adierazpenak aldatuz joan–.

Neskatil edo mutiko izatea edo definizio horietan ez sartzea (haurra izatea¹²) prozesu konplexua eta faktore anitzekoa da. Bertan eragina dute genitalek, haurtzaroko sozializazioak edo hazkuntzak, familiaren itxaropenek, errealitate ukigarriaren parte diren eta dimentsio kontzientearen duten determinatzaile kulturalak; baina haur bakoitzari dagozkion beste elementu ukiezin eta inkontzienteago batzuek ere eragiten dute.

Ikus ditzagun bazterketetako batzuk eta nola konpondu diren eta nola ekin dakiekeen.

Pertsona intersexualen kasuan, argi eta garbi identifikatutako eta garatutako zakil edo bulbarekin jaiotzen ez direnen, alegia genital anbiguoekin jaiotzen direnen kasuan, orientazio mediko eta sozial argia egon da genital horiek definitzeko, baita adin txikikoetan ebakuntza kirurgikoa egiteko ere, sistema binarioetara egokitze edo neska edo mutil gisako haziera bat jaso ahal izateko. Aukera horrek ez du esan nahi, hazten direnean, pertsonak esleitutako sexuarekin eta generoarekin identifikatzen direnik, baina pertsona helduentzat zaila dirudi indefinizioa onartzea eta pertsona intersexualen garapen askea ahalbidetzea.

Beste kasu batzuetan, genitalen definizioan eta jaiotzean egiten den genero-esleipenean zalantzarik ez dagoenean, eta hori garatutako kidesun-sentimenduekin, hau da, genero-identitatearekin bat ez datorrenean, gatazka pertsonala zein familiarra bihurtu daiteke, dimentsio soziala izateaz gain. Gizarte-arau binarioak desafiatzen duen komunitaduraren falta hori da trans gisa izendatzen dena (transgeneritatea, transexualitatea).

Errealitate konplexu hori onartzearen mende dago trans neskatilak edo trans mutikoak bere sentimendua hainbesteko sufrimendurik gabe asumitu ahal izatea, gizartean izan ditzakeenaz aparte gatazkarik gabe; eta ulertzea ezagutzen ditugun zakildun gehienak mutilak izanagatik ere, horrek ez

¹² Mota guztietako definizioetan binarismoa markatuta duten zenbait hizkuntzatan, beste identitate batzuk ezagutzeak horiek ikusarazteko hizkuntza-formak bilatu behar izatea ekarri du; horregatik, pertsona ez-binario gisa identifikatzeko, x edo e bat erabili da amaieran, gaztelanian. Material honetan e generikoa erabiliko dugu generoaren forma ez-binarioak aipatzeko.

duela esan nahi zakila duten pertsona guztiak mutilak direnik, eta neska gehienek bulba izateak ez duela esan nahi neska guztiek bulba dutenik, batzuetan zakila ere izan baitezakete.

Trans errealitatea:

Trans errealitatea ez da anomalia bat, eta ez du esan nahi eraldatu egin behar den gorputz oker batean jaio izana. Isilarazi, zapaldu, jazarri eta zigortu egin den aniztasun bat da, eta pertsonen ikuspegi binarioa zalantzan jartzen duten gizarteetan azaleratzen da –ez zailtasunik gabe–. Trans errealitate horretan izan daitezke zenbait esperientzia, eskema binarioaren barruan kokatzen direla baieztatu ondoren, baztertu egiten dutenak, hau da, haur trans gisa argiago identifikatzen direnak. Beste esperientzia batzuek prozesu hori aldi berean egiten dute, hau da, haur trans gisa identifikatuko dira beren adierazpen primarioenetatik.

Konplexutasun hori ondo ezagutzea eta horri aniztasuna onartuz heltzea zaila izan daiteke nagusi den binarismoan hezi garenontzat, eta buruko min bat baino gehiago eragin dezake edo haurrek egiten dituzten galderen aurreko isiltasun deseroso baten bidez adieraz daiteke. Oso garrantzitsua da hezitzaileek ulertzea genero-identitatearen eta inguruneke itxaropenen arteko gatazka batek frustrazioa, antsietatea eta zailtasun emozional larriak ekar ditzakeela.

Sexu-hezkuntza integralak pertsona askeak sortzea dakar. Hezitzaileek gorputza ulertzeko prozesuan laguntzen dute, sexualitatea, errealitate sexuala ez da gorputzak epaitzea, baizik eta entzutea, zalantzak hartzea, laguntzea, nor bere burua zaintzea eta errespetua erakustea.

Teniendo en cuenta que la identidad está formada por muchas dimensiones y que es un proceso que se da en cada persona a su propia manera, nos ocuparemos del análisis de los roles de género como expresión de la identidad de género en el apartado Cultura y entorno: Roles y estereotipos.

Kontuan hartuta identitatea dimentsio askok osatzen dutela eta pertsona bakoitzak bere erara egiten duen prozesua dela, genero-rolak genero-identitatearen adierazpen gisa *Genero -rolak eta -estereotipoak* atalean aztertuko ditugu.

Julen edo Julene

Julen (6 urte) mundu guztiari Julene deitzeko eskatzen hasi da, femeninoan tratatzeko eta neska bat dela azpimarratuz. Ez dakizu zein den familiak horren inguruan duen jarrera. Nola jokatu zenuke?



Genero-adierazpena

Genero-adierazpena da kultura-testuinguru jakin batean generoarekin lotuta dauden eta maskulinoaren eta femeninoaren kategorien inguruan mugituko diren pertsona baten itxura, portaera, jarrera eta keinuak. Halaber, adierazpenaren barruan sartzen dira gustu estetikoak, orrazkera, arropa, janzteko modua, hitz egiteko eta ideiak adierazteko modua, izena, gustuak eta zaletasunak...

Jarduera gehienek maskulinoa/femeninoa dikotomia hori izango dute eta, gainera, maskulinoa garrantzitsuagoa izango da gizonek egiten dutelako. Hala ere, gizonezkoen/emakumezkoen binomioa arinen desmuntatu den fikzioetako bat da, kategoria unibertsalak eta iraunkorrak ez direlako, geografikoki zein historikoki aldatzen direlako, eta gero eta gehiago daudelako jarduera, arropa, portaera, gustu, etab. *unisexak*, hau da, kategoria binariotik kanpokoak; eta bai neskatilek, bai mutilek erabili, hartu eta bereganatu ditzakete eta, ziurrenik, gusturago egongo dira adierazteko modu libreago horrekin.

Genero-adierazpena genero-identitatearen elementuetako bat da, eta, beraz, hau ere aintzat hartu behar da; izan ere, maskulinitate- edo feminitate-forma anitzen adierazpenak berebiziko garrantzia du bizitzako une jakin batzuetan, eta gorputz-irudi aberats eta elikagarri baten garapena babesten dute.

Adierazpenaren definizio hori genero-rolekin zuzenean lotuta dagoenez, definizio hori adinaren arabera ere definituko da *Genero –rolak eta -estereotipoak* atalean.

Badirudi? Bada?:

Nagorek (8 urte) mutilen saileko arropa janzten du, galtzontziloak erabiltzen ditu, ile motza darama... Ezagutzen ez dutenek mutil batekin nahasten dute. Hori gertatzen denean, asko haserretzen da, eta neska bat dela azpimarratzen du.

Nola eramango zenuke egoera hori haurtxokoan?



Genero-identitatea eta -adierazpena aztertzen ari garen adin-tarteetan sexualitatearen ikaskuntzak tindatzen joango dira. Nagusiki binarioa den gizarte batean, neska edo mutila izatea sexu-ikaskuntza eta gorputzaren autoirudia bideratzen dituen definizioa da oraindik ere. Neskek ederrak izateko, gustatzeko eta desiratuak izateko heziak izaten jarraitzen dute. Sexualitateari buruzko haien ikaskuntza arau horiek betetzea ahalbidetzen dioten genero-adierazpenak berrestera bideratzen da. Mutilak, aldiz, pribilegio sexualetik sozializatzen dira; izan ere, pribilegio horrek aukera ematen die aukeratzeko, epaitzeko eta beren burua baliotsutzat hartzeko, eta gustatzeko presiorik gabe.

Hala ere, gizonezkoen eta emakumezkoen fikziora egokitze presioak areagotu egiten dira adinean aurrera egin ahala eta, lehenengo urteetan (5 eta 7 urte bitartean) familian eta gizartean genero-identitatearekin eta -adierazpenarekin eta unisex portaerekin esperimentatzeko nolabaiteko tolerantzia badago (indartu ere egin daitezke, "haur-jolasak" direla irizita), hazten diren heinean batzuek eta besteek beren itxaropenak betetzeak eta beren nahiak adierazteak dakarren gatazkari aurre egin beharko diote.

Ingurunearen itxaropenen eta norberaren nahien arteko gatazka horri maila guztietan erantzun eta lagundu behar zaio, gorputzaren onarpenetik hasi eta haurtzaroan eta nerabezaroan identitateak eraikitzeraino. Bestalde, tresnak eman behar zaizkie lehen haurtzarotik parekoekin berdintasunezko harremanak eraiki ditzaten eta gero eta zorrotzagoa eta kontraesankorragoa den ingurune baten eskakizunak kudeatzen ikas dezaten, identitate- eta sexualitate-adierazpen desberdinei dagokienez.

2.2. Beste pertsona batzuk ezagutzen ari naiz

Garapen pertsonalak norberaren kontzientzia eta bestetasunaren¹³ kontzientzia hartzea ahalbidetzen du, eta horrek gure ingurunearekin erlazionatzeko motibatzen gaitu. Ildo horretan, haurtxokoen zeregina sozializazioarako espazio inklusiboak eskaintzea da, eta, horietan, hainbat testuingurutako (kultura, gaitasun, klase sozioekonomiko... desberdinetako) beste haur batzuekin bizitzeko oinarrizko trebetasunak probatzea eta ikastea.

Espazio horietan bizikidetzako eta gizarte-harremaneko arauak entseatzen eta ikasten dira, bai eta mugak ezartzen eta keinuen eta jokabide jakin batzuen esanahia interpretatzen ere. Gainera, giro eta zirkulu berrietan esperimentatzeko aukera ematen dute, interesak aldatu eta jakin-mina ase ahala pertsonekin elkarreaginean aritzeko eta aberasteko.

¹³ Kontzeptu hori erabiliko dugu haurren bilakaerak berekin dakarrelako asimilatzea NIA entitate bakarra dela *bestetasun* batean (indibidualtasunena, kolektiboena, bereizgarriena, ezaugarriena, ezaugarriak, etab.) osatzen diren gainerako pertsonetik. *Bestetasun* hori eta berau ulertzeko modua ere funtsezkoak dira EZ NI-tik identifikatzeko prozesuan, hau da, ez naizenetik, parte ez naizenetik, identifikatzen ez naizenetik.

Beraz, kasu honetan, hezitzaileen zeregina izan behar da haur bakoitzari laguntzea, harreman-sare elikagarri eta aberatsa sortu eta bertan oinarrizko gizarte-trebetasunak probatu eta ikasteko. Era berean, harreman-mota desberdinen arteko desberdintasunak ezagutzen lagundu beharko diete: familiakoak, lagunartekoak...

Familia, lehenik eta behin, eta lagunak, egin ahala, aztertzen ari garen etapetako gizarte-erreferente garrantzitsuenak dira. Eta horien aurrean, eta sexualitatea ulertzeko moduan duten funtzioaren aurrean, NI-a eta bestetasun hori, babesten eta zalantzan jartzen duena, argi eta garbi mugarrizten dituen pribatutasun-beharrak sortzen doaz.

■ FAMILIA

Familia da pertsonen lehen laguntza-sarea eta hurbilen dagoena eta, beraz, garrantzitsua da garapen pertsonal eta sozial egokia lortzeko beharrezko baliabideak eskainiko dituen familia-giroa sustatzea. Garrantzitsua da haurtzaroan erantzun emozionalak erabiltzen ikastea, pertsonen arteko harreman asertiboak eta harmonikoak eraiki ahal izateko. Familiak zeregin handia du garapen horretan, erreferente garrantzitsuak diren pertsonak osatzen baitute; eredu horiek imitatu egingo dira eta, horietatik abiatuta, identitatea, ohiturak, errespetua, elkarrizketa, tolerantzia eta bizikidetzatza garatuko dira, gizabanako bakoitzaren eta haren ingurunearen ongizatea sustatzen duten beste alderdi batzuen artean.

Familia guztiak ez dira berdinak, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, eta familia-harreman guztiak ere ez dira harmonikoak. Familia-aniztasuna aberastasuna da, eta garrantzitsua da hori aitortzea, eta zalantzan jartzea ama edo aita ez dutenak, edo bi ama edo bi aita dituztenak, edo urruntasunean dituztenak eta beste pertsona batzuk zaintzen eta hezten ari direnak tokirik gabe uzten dituzten familia-eredu nuklearrak. Familia batzuk egoera desberdinengatik bananduta daude, baina lotura afektiboak izaten jarraitzen dute.

Zenbait familiatan aitak indarkeria erabiltzen du amaren aurka, eta horrek eragina izango du haurren ongizatean. Beste batzuetan haurrak zuzenean erasotuak izan dira edo izaten ari dira eta, hainbatetan, gurasoren batek min eman diezaieke eta amari min emateko erabili.

Familia-errealitate horiek guztiak kontuan hartu behar dira hori bizi dutenak ez estigmatizatzeko, eredu normatibo gisa aurkeztu ohi direnekin identifikatzen ez direnean deserosotasun-sentimenduak eta isolamendua ez sortzeko.

Baina urteak betetzen joan ahala, haurren heziketan familien eragina beste erreferente batzuekin lotu edo lehiatu behar da, hala nola eskolarekin edo berdinen taldeekin. Haurtxokoetara joaten direnen familiek berebiziko garrantzia dute, eta ezagutu egin behar dira eta parte hartzera animatu, beren haurren garapen sozialari lagunduko dioten familia-dinamikak sustatzeko. Horien barruan sartzen dira:

- Ideiak, balioak eta sinesmenak modu asertiboan transmititzea, besteen iritziak entzuten eta errespetatzen irakasteko.
- Norberaren ideiez eta emozioez arduratzea, ulermena sustatuz.
- Emozioak komentatzea, enpatia sortzen laguntzeko eta errespetu- eta ulermen-jarrerak garatzeko.
- Gai intimoak eta pertsonalak errespetuz tratatzeko komunikazio-espazioak garatzea, atxikimendua, konfiantza eta irtenbide hobeak bilatzeko.
- Gogo-aldaratean eragin negatiboa duten arazoez eta alderdi gatazkatsuez hitz egitea, bai eta balioespena eta aintzatespena esperimentatzeko bizipen positiboek eta lorpenek ere.

Familia-motak

Familia-mota asko eta desberdinak daude, ia familia adina munduan. Benetan garrantzitsua da hurrei helaraztea hainbeste familia-mota aurkitu ahal izatea zer aberatsa den eta irakastea familia nuklear tradizionalarekiko duten hurbiltasunaren arabera ez hierarkizatzen. Hona hemen familia moten adibide batzuk:

- **Bi gurasoko familia.** Ezkonduta edo izatezko bikote gisa lotuta dauden edo egon diren bi pertsonak osatzen dute haien ondorengoekin, elkarrekin izandakoak izan ala ez, edo haien tutoretzapean, zaintzapean edo harreran dauden adingabeekin.
- **Guraso bakarreko familia.** Guraso bakarrek, dela emakumeak, dela gizonak, eta bigarren mailarainoko ondorengo batek edo gehiagok osatzen dute, eta adingabeen kasuan, horien gaineko zaintza eta jagoletza eskusiboak du; edo adingabe batekin edo gehiagorekin bizi da familia-harrera iraunkorreko erregimenean edo adopzio-helburuko zaintzan, pertsona hartzaile edo zaintzaile bakarra denean.
- **LGTBI gurasoko familia.** Gutxienez, LGTBI kolektibo bateko pertsona batek (lesbianak, gayak, transak, bisexualak, intersexualak edo beste gutxiengo sexual edo generokoren batekoak) edo sexu edo genero bereko bi pertsonak osatzen dute, ezkontzaz edo izatezko bikote gisa elkartuta, eta, hala badagokio, haien ondorengoekin, elkarrekin izandakoak izan ala ez, edo harreran edo tutoretzan hartutako adingabeekin.
- **Familiaordea.** Bikoteko kide batek edo biek aurreko harremanetako seme-alabak dituztenean.
- **Familia etorkina.** Familiako kide guztiak edo batzuk lurralde nazionalean finkatu dira beste estatu edo lurralde batetik etorruta.
- **Nazioz gaindiko familiak.** Kideren bat edo batzuk lurralde nazionaletik kanpo bizi dira.
- **Kultura arteko familia.** Ingurune kultural edo etniko desberdinetatik datozen pertsonen arteko familia-unitatea.

Familia-eredua alde batera utzita, haren barruan haurrek bi trebetasun psikologiko handi eskuratuko dituzte: atxikimendua eta autonomia, hau da, beste pertsona batzuekin lotzeko gaitasuna eta atxikimendu hori adierazteko moduak, eta nor bere ideiak, irizpideak eta balioak izateko gaitasuna.


Atxikimendu-sistemaren eta autonomiaren arteko oreka familia-estiloen araberakoa da, baina kulturak eta trebetasun horietako bakoitzari ematen dion balioak ere eragin handia dute.

Ikus ditzagun ekarpen nagusietako batzuk, aztertzen ari garen adin-tarteen arabera.

5 eta 7 urte artean

Etaparen honen ezaugarri nagusia da hurrek arreta ematen dietela guraso/zaintzaile nagusien jarraibideei eta irakaskuntzei, horiek baitira beren jokabide-ereduak interakzio sozialetan.

Etaparen honen hasieran haurrak inguruko mundua eta bertan duten lekua ulertzen hasten dira: familiako kideak ezagutzen dituzte, baita bizi diren herriaren izena eta beren helbidea ere. Atsegin izateko eta laguntzeko gogo handia dute, etxean mandatu txikiak eginez eta egiten dutenarekin arreta erakarriz. Gainera, helduak imitatzen hasiko dira, «nagusien gauzak» egiten, hala nola, amaren edo aitaren arropak jantziz... Oso pozik daude beren arrakastarekin eta sorkuntza txikiekin, eta nabarmentzea gustatzen zaie. Oro har, gustura sentitzen dira etxean, familian, arrotzen artean eta beren adineko pertsonekin.



Jeloskortasun-jokabideak nahiko arruntak izaten dira, batez ere familian haur bat edo pertsona berri bat agertzen denean; ordezkapenak eta ahanzturak beldurra sortzen dute; eta izuak egoera zehatz eta lokalizatuera bideratzen dira.

Adin horietan hurrek maiz aipatzen dute gurasoekin edo senideren batekin ezkondu nahi dutela. Horrek nahasmena sor diezaieke inguruko helduei, beren ikuspegi helduzentristatik adierazpen horiek erotizatzen baitituzte. Egia esan, maitatzeko eta lotura afektiboak eratzeko duten gaitasuna adierazteko modu bat da.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da seme-alabek eta gurasoek familia-harremanetan betetzen duten rola berri ematea eta erakustea, harreman osasungarriak eta errespetuzkoak erakustea, hurrek beren sentimenduak adierazten eta beren buruarekiko eta besteekiko errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzen ikastea, familiaren barruan eredu afektiboak erakutsiz.

Zergatik beste bat ni banago?

Yazhuren gurasoek (5 urte) neska bat adoptatuko dute. Yazhuk jeloskortasun eta arbuio handia sentitzen du ideiarene aurrean. Bere jolasetan, abandonuaren ideia islatzen hasi da: etxetxoetan jolasten denean, «neskato abandonatuaren» edo «bere gurasoek nahi ez duten haurraren» papera egiten du.

Nola lagundu diezaiokegu Yazhuri?



8-10 urte

Adin horretan argi eta garbi identifikatzen dira amaren eta aitaren rola (biak dauden familietan): emakumea zaintzan, gizona erabakiak hartzen. Halaber, dagoeneko ikasten dute norengana jo behar duten mimoak edo baimenak lortu nahi dituztenean. Helduen hierarkia identifikatzearekin batera, anai-arrebak badaude, horien taldean ere eratzten da, rol desberdinak garatuz. Adinekoek aginte- eta babes-lanak egingo dituzte txikiekin; eta rol horietan generoak zeregin garrantzitsua izango du.

Bestalde, familia-hierarkia argi horri esker, familiarik kanpoko pertsonenganako interes handiagoa ere izango dute. Haurrek familiarekiko independentzia gero eta handiagoa eta lagunenganako interes handiagoa adieraziko dituzte.

Independentzia horren garapenak esanahi desberdina hartzen du familia bakoitzean, eta batzuek bultzatu egiten dituzte, beste batzuek kanporako mugimendu hori mehatxutzat hartzen duten bitartean, edo banaketa horretarako goizegi dela uste duten bitartean. Familiak prozesu horren aurrean ematen duen erantzunak eragina izango du erantzukizunaren sena eskuratu eta autonomia balioztatzeko orduan.



Nik zaintzen dut:

loritzek (9 urte) anaia txikia du, Gaizka (5 urte), eta haurtxokora etortzen hasi da berarekin. loritzek oso jarrera babeslea hartu du Gaizkarekin, eta haur txikiak mehatxatzen ditu anaiarekin desadostasunen bat badute edo gaizki tratatzen badute.

Zer egin dezakegu haurtxokoan harremanak normalizatzeko?

10-12 urte

Aurrenerabeak autonomian trebatzen dira, eta gero eta zabalagoa irabazi nahi dute. Lagunek pisu handia dute eta familiaren kontrapisua dira.

Familiak erreferente eta laguntza emozionalaren gune izaten jarraituko duen arren, imitatu beharreko eredu izateari utziko dio. Ikasitako balioek eta sinesmenek iraungo dute, baina errebeldiaren eta guraso-irudiekiko hausturaren lehen zantzuak agertuko dira.

Amaren neskalaguna:

Liberen gurasoak (12 urte) bananduta daude. Bai aitak bai amak neskalaguna dute. Azkenaldian entzun duzu Libek iruzkin homofobo batzuk egiten dituela bere amaren neskalagunaren aurka.

Nola helduko zenioke egoerari?



■ LAGUNAK

Lagun taldeak edo berdinen taldeak familiaren eragin bera edo are handiagoa izan dezake, atxikimenduaren eta adiskidetasunaren ondorioz. Fenomeno hori maila gorenera iristen da nerabezaroran.

Hala ere, berdinen taldeak duen garrantzia haurtzaroran ere ikus daiteke, berdinen arteko harremanek gizarte-trebetasunak, jolas-trebetasunak, mugimen-trebetasunak eta hizkuntza-trebetasunak garatzen laguntzen baitute. Gainera, berdinen taldeak beste funtzio batzuk betetzen ditu garapenean:

- Familietan tabu izan ohi diren gaiak aztertzeko gunea da, batez ere gorputzari eta sexualitateari buruzkoak.
- Lotura afektibo berriak garatuz, haurrei laguntzen die familiaren erreferentziazko pertsonen aurrean autonomia irabazten eta erabakiak hartzeko eta erantzukizunak hartzeko gaitasuna handitzen.
- Emozioak bideratzen eta doitzen ikasteko prozesuan laguntzen du.
- Besteen eskubideak eta betebeharrak aitortzen laguntzen du, bai eta norberarenak ere.

5 eta 7 urte artean

Garapena eta sozializazioa aurrera doazen heinean, lagunekin harremanak sortzen dira jolasen bidez. Hasieran, jokoa bakartia da eta irudiekin edo amtsezko lagunekin egiten da; ondoren, lagunarteko jokoa erakargarriagoa izango da. 6 urte inguruan, jolasa talde-jarduera bihurtzen da. Orduan hasten dira beren buruari inposatzen dizkieten eta besteek inposatzen dizkieten mugak ulertzen eta errespetatzen.



Ez, ez da:

6 urteko nesken eta mutilen talde bat elkarri kilimak egiten ari dira. Halako batean, nesketako batek ez du jolasten jarraitu nahi, baina kilimak egiten jarraitu dute negarrez hasi den arte. Gainerakoek diote ez dutela ulertzen zergatik egiten duen negar, hasieran taldean jokatu nahi bazuen.

Zer egin genezake egoera horretan?

8-10 urte

Etapan honetan, adiskidetasun eta harreman sendoagoak eta konplexuagoak sortzen dira. Emozionalki, gero eta garrantzitsuagoa da lagunak izatea, bereziki, genero berekoak. Lagunik onenaren irudia agertzen da; berarekin egon daitezke egun osoan eta badirudi inoiz ez dutela horretarako denbora nahikoa.

Aldi berean, hurrek gehiago sentitzen dute berdinen eta taldearen presioa. Beren buruarekin ondo sentitzen diren eta autokontzeptu eta autoestimu ona duten hurrek gaitasun handiagoa dute taldearen presio negatiboari aurre egiteko; eta beren kabuz erabaki hobeak hartzen dituzte. Dibertsitate-motaren bat dutenak edo taldearen itxaropenei erantzuten ez dietenak pertsona zaugarrituak bihur daitezke.

Jazarpen-arriskuak eta jokabide desegokiei buruzko isiltasunak ager daitezke, eta arazo larri bihurtu, arreta jartzen ez bada.

Neskatilak, ez; mutikoak ere ez:

9 urteko hurrek ez dute ezertarako elkarrekin nahastu nahi: ez dute elkarrekin jolasten, ez dute elkarrekin jarduerarik egiten, mespretxuz tratatzen dira... Egoera hori giro txarra sortzen ari da haurtxokoan. Zer egin liteke harremanak normalizatzeko?




10-12 urte

Etapan horretan adiskidetasuna intimitatean oinarritzen da. Nerabezaroaurrea ordura arte familian ikasitakoa zalantzan jartzen hasteko etapa izaten da. Jokabide-erreferentziak koadrilarenak edo beraiekin sekretuak partekatzen dituzten lagun minenak izaten hasi dira, intimitate horren funtsezko parte baitira. Maiz eskatzen da sekretuak gordetzeko, baina guztiek ez dute garrantzi bera eta horrek

maila desberdinetako eragina izan dezake haurren bizitzan. Sekretu horiek azaleratzean adiskidetasuna gal daiteke.

Adin horretan gertatzen hasten diren eta guztiengan aldi berean gertatzen ez diren aldaketa fisikoek intimitate hori hautsi edo indartu dezakete.



Nire laguna, ni neu:

Eiderrek eta Jiek (12 urte) adiskidetasun-harreman bizia dute. Berdin jantzi nahi dute, dena elkarrekin egin... Beren adineko beste pertsonekin harremanak dituzte, baina beti argi uzten dute lagun onenak direla eta gainerakoak beren lotura berezitik kanpo geratzen direla. Hezitzaileek ikusten dute horrek min egiten diela lagun-talde bereko pertsona batzuei, gutxiago balioztatzen direla sentitzen baitute. Zer egin genezake egoera horren aurrean?

■ INTIMITATEA ETA PRIBATUTASUNA

Intimitaterako espazioa eta denbora funtsezkoak dira garatzeko. Intimitatean norbere nahiekin konektatzen da, gorputzaren irudia integratzen dugu, ahalkearen muga garrantzitsuak ezartzen ditugu, sentazio atseginak ezagutzen ditugu, gure emozioak egituratzen ditugu eta intimoaren eta publikoaren arteko aldea ikasten dugu. Berebiziko garrantzia duen bereizketa hori barneratu ahal izateko, intimitaterako espazio irisgarriak izan behar ditugu.

Urraketa- edo abusu-egoerak prebenitu eta saihesteko, funtsezkoa da gorputza eta bere funtzionamendua ezagutzea eta besteen hurbilketak eta besteenganakoak bereizten ikastea. Hezitzaileen zeregina da haien espazio pertsonal eta intimora zergatik hurbiltzen diren azaltzea, arazorik gabeko hurbilketak (higienea, osasunaren zaintza, afektu fisikoa) eta karga erotikoa duten beste hurbilketa edo egoera batzuk bereizten ikasteko.

Zeregin hori gauzatzeko orduan, garrantzitsua da haurren lotsa eta espazio pribatua errespetatzea, batez ere biluztasun- edo kitzikapen-egoeretan. Lotsa intimitatearen muga markatzeko modu bat da, urratu behar ez den espazio baten aurrean gaudela ohartarazten digun seinale bat.

Kontuan izan behar da ezin dugula inor behartu musuak edo besarkadak ematera, ezta nahi ez duten kontaktu fisikoa izatera ere (ilea edo arropa ukitzea barne), eta haurtzaroan baliabideak irakatsi behar zaizkiela esperientzia baten aurrean gaizki sentitzen direnean mugak nola eta noiz jarri jakin dezaten.

5-7 urte

5 urterekin haurrak testuinguru desberdinak daudela ulertzen hasten dira: batzuk publikoak eta beste batzuk pribatuak. Aldi berean, besteak errespetatzeko bizikidetzara-arauek bete behar direla ikasten dute. 7 urte dituztenerako, ulertzen dute zer diren sekretuak eta intimitatea, eta oso litekeena da pribatuki masturbazioan plazera bilatzea, nahiz eta kontzeptu hori oraindik ulertzen ez duten.

Kasu praktikoa:

Hezitzaile batek hiru mutil (7 urte) aurkitu ditu komunean, elkarri genitalak ukitzen. Komunetik bota ditu esanez hori ez dela egiten. Haurrek ez dute ulertzen zergatik eten den jolasa eta haserre daude. Zer egin liteke egoera horretan? Ondo jokatu al du hezitzaileak?

8-10 urte

Etapa honetan, espazio eta testuinguru publikoak eta pribatuak ondo bereizten dira, batez ere gorputzarekiko intimoak diren uneetarako, hala nola biluztasunerako edo masturbaziorako.

Kasu praktikoa:

Natalieren amak (10 urte) baimena eman dio hezitzaileei bere alaba agertzen den argazkiak sarera igotzeko. Hala ere, Nataliek ez du argazkietan atera nahi, oso agerian sentitzen delako. Taldea bere nahia errespetatzen eta argazkietatik kanpo uzten saiatu da, baina ama kexatu egin da, ez delako inon ateratzen. Zergatik uste duzu Nataliek ez duela argazkietan atera nahi? Zer egin liteke egoera horretan?

10-12 urte

Adin hauetan areagotu egiten dira pribatutasuna izateko beharra eta areagotu adiskidetasun-harremanen intimitatea.

Haurrek biluzik dauden edo eduki sexual esplizitua duten pertsonen irudiak ikusteko interesa agertuko dute (pantailen bidez egin ohi da hori). Masturbazioak pribatuan izaten jarraituko du, eta litekeena da haur batzuek lehen sexu-harremanak hastea.

Nahiz eta pertsona batzuentzat zaila den adin horretako haurrak sexu-harremanak izaten imajinatzea – batez ere, harreman genitaletan pentsatzen bada – hobe da hori irudikatzea, eta agian laguntzarik gabe eta arriskuren batekin gertatzen ari dena ez ukatzea. Aukera horri buruz hitz egiteak ez du esan nahi harremanak sustatzen direnik; aitzitik, harremanak izan dituztenek edo horretarako presioa jasotzen dutenek entzunak izateko leku seguru bat aurkitzea esan nahi du.

Pornosexualizazioa:

Haurtxokoko mutiletako bat, Ibai (12 urte), mugikorra duen lehena da. Gurasoek kontrolerako eta zibersegurtasunerako hainbat neurri hartu dituzten arren, Ibaik webgune pornografiko batera sartzea lortu du gailutik. Beste lagun batzuekin batera aurkitu duzu bainugelan, webguneko bideoak ikusten. Nola jokatu dezakegu?

Argi izan behar dugu, une honetan, sexu-harremanak hezitzaileen garaian baino goizago hasten direla, eta are goizago haurren gurasoenean baino. Funtsezkoa da, halaber, belaunaldi honetan pantailetakokulturak zer dakarren balioztatzea, hau da, Internetek sexualitateari buruzko eduki grafiko eta idatzietara sartzeko duen garrantzia, adin horietan ez baitago gai horiek iragazteko gaitasunik; eta, beraz, informazio zientifikoa eta egiazkoa mito, gezur eta era guztietako pornografiarekin nahas daiteke.

Intimitateak eta pribatutasunak bateragarriak izan behar dute zaintzarekin eta lagun egitearekin. Aurrenerabeek sare sozialek erakusten dituzten sexu-estereotipoak ezagutu eta eztabaidatu behar dituzte, jarrera ireki eta ulerkor batetik, eta horrek ez du esan nahi haietan argitaratzen den guztia besterik gabe onartu behar dutenik.

Maila guztietako harremanak konplexuak dira: afektuetan, hurbiltasunean, alderdi komunetan eta desberdintasunetan oinarritzen dira. Ez dezagun inoiz ziurtzat jo haurren artean sortzen diren harreman guztiak ulertzen ditugula eta hurbildu gaitezen haiek ulertzera eta haietatik ikastera.

2.3. Ingurune batean bizi naiz

■ ANIZTASUNA

Lehen esan bezala, sexua ez da kategoria estankoa, dinamikoa eta esanahiez betea baizik. Sexualizazio-prozesua hamaika ñabarduraren bidez osatzen da, eta ñabardura horiek pertsona bakoitzarengan modu bakarrean adierazten dira bere bizi-historian zehar. Hala, munduan dauden pertsona adina izaera desberdin sortzen dira.

Sexua ez da berizten gaituen elementu bakarra, pertsonak sustatu, hezi, artatu eta lagundu egin behar diren identitate, gorputz, adierazpen, familia, sexu-orientazio, bestelako orientazio, interes, desira erotiko, behar, gaitasun eta biografiek bereizten gaituzte.

Illo horretan, aniztasuna pertsonak eta, batez ere, bizikidetza soziala aberasten dituen balio gisa ulertzen da, bere kudeaketa erronka bat denean ere.

■ KULTURA ETA GIZARTEA

XXI. mendearen bigarren hamarkadan, euskal gizarteak onartzen du demografia-, kultura- eta politika-aldaketek bere biztanleriaren aniztasuna eta pluraltasuna hobeto kudeatu beharra ekarri diotela. Hala ere, ez da ahaztu behar erlijioak eragin handia izan duela herritarren balioen artikulazioan. Balio tradizionalak gure gizartearen hainbat alderdi markatu dituzte: publikoa dena eta intimoa dena, onargarria eta onartezina dena, ahalkegarria eta lizuna dena, maskulinoa eta femeninoa dena, arrazionala eta emozionala dena, ona eta txarra dena... Testuinguru soziokulturalek eragin handia dute sexualitateetan, sexualitatearen garapena eta adierazpena eta haiei buruz dauden ideiak moldatzen, egituratzen eta kontrolatzen dituzte; eta horiek haurren sozializatorako narratiba gisa balio dute. Beraz, sexualitatea aztertzerakoan, kultura edo gizarte jakin batean duen lekua eta esanahia hartu behar dira kontuan.

Tradizioz, sexualitatea helduen mundura mugatu izan da (plazera lortzea –genitalena eta emakumeentzat eta gizonentzat berezia– eta ugalketa, bananduta egon daitezkeenak), baita eremu pribatuagora ere (esparru intimoa, oraindik familiaren barruan). Horregatik, azken urteotan sortzen ari

diren identitateen, gorputzen eta orientazioen aniztasunaren aurrean, nahasmen handia eta ziurtasun gutxi dago.

Hurrei garatzen laguntzen dieten helduen zeregina da begirada tradizionaletik aldendu eta aniztasunaren balioan zentratzen den kalitatezko sexu-hezkuntza eskaintzea,.

■ KULTURARTEKOTASUNA

Gero eta gizarte anitzagoa eta askotarikoagoa izatea testuinguru berean kultura desberdinak elkarrekin bizitzearen emaitza da. Duela gutxi arte bizikidetzaren eredu hori kultura-aniztasunarena bazen ere (kulturen arteko kontakturik gabeko koexistentzia zuen ezaugarri), azken urteotan kulturartekotasunerantz egin da aurrera (kulturen arteko elkarrekiko eraginak ezaugarritzen du, kulturen arteko inposiziorik gabe).

Aniztasun horrek aberastasuna eta sexualitatea ulertzeko eta bizitzeko hainbat modu ematen dituen arren, tradizio eta ezaugarri kultural desberdinetatik eratorritako gatazkak ere ekar ditzake. Kontuan izan behar da emakume eta gizonentzat publikoa denaren eta pribatua denaren, onargarria eta onartezina denaren, ona eta txarra denaren mugak kulturaren arabera alda daitezkeela. Egoera horietan, hezitzaileen eta haurrak hazteko ardura duten pertsonen arteko komunikazio aktiboa eta jarraitua da gakoa, bai eta norberarenak ez diren kulturak ulertzeko benetako interesa ere.

Hezitzaileek kulturarteko testuinguruekin aritzerakoan bete ditzaketen zenbait jarraibide:

- Hautxokoak erabiltzen dituzten haurren background-a, hau da, bizi-esperientziak errespetatzea eta ulertzen saiatzea.
- Hautxokoetan elkarrekintzan dauden kulturen ikaskuntza aktiboa gauzatzea.
- Kultura guztiek, euskal kulturak barne, ezarritako mugei buruzko iritziak ezagutu, errespetatu eta trukatzeko.
- Kontuan izatea **dena ez dela errespetagarria**. Sinesmen, jarrera edo iritzi batek zuzenean edo zeharka beste kolektibo edo gizabanako batzuen (emakumeak, LGTBIQA+ kolektiboko pertsonak, pertsona ezinduak edo neuroanitzak) eskubideen aurka egiten duenean, ez da inola ere errespetagarria izango, nahiz eta kulturartekotasunaren barruan kokatu.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, pertsona guztiak integratzeko eta arrazakeria baztertzeko politika egokirik egon gabe, emakumeen eta gizonen roletan oso estereotipatuta dauden kulturen alderdi batzuk zalantzan jartzen direnean, rol horiek direla mantentzeko joera handiena izango dutenak, eta feminitatearekin lotutako tradizioen errebindikazioa izango dute aldarrikapen nagusietako bat.

Laburbilduz, aniztasuna kontuan hartuta, kulturek, erlijioek eta gizarteek sexualitatearen ulermenean duten eraginari buruzko hausnarketa erraztu beharko litzateke, betiere sexu-eskubideak bermatuz.



Sukaldaritza-kultura:

Haurtxokoaren ikasturtea ixteko, txiki guztiekin askari handi bat egitea erabaki da. Egizu eramango zenituzkeen elikagaien zerrenda azkar bat. Baten bat hallal da? Ba al dago txiki begetarianorik edo beganorik? Pentsatu dituzun aukerak egokiak al dira guztientzat?

■ GENERO-ROLAK ETA -ESTEREOTIPOAK

Inguruneak eragina du haurren sexualitatean. Kulturek araudi sexual gutxi gorabehera zurrunk ezartzen dituzte, eta egitura matxistetan oinarritzen direnean, arau horien ondoriozko sexualitateen ikuspegiak eta praktikak ere matxistak dira.

Gure egiturak sexu-genero-sexualitate sistema binarioan oinarritzen dira. Sistema horrek “maskulinoa-femeninoa” dikotomiaren arabera moldatzen du gizartea: gorputzak ezaugarri biologiko batzuen arabera sailkatzen ditu (hormonak, kromosomak, genitalak, bigarren mailako ezaugarri sexualak), eta bete beharreko estereotipo eta rol batzuk esleitzen dizkie, dagokien kategoriaren arabera.

Hona hemen genero-estereotipo eta -rol batzuk¹⁴:

Emakumeei lotutakoak		Gizonei lotutakoak	
Estereotipoak	Rolak	Estereotipoak	Rolak
Pasibotasuna	Zaintzarekin lotutako lanbideak edo sozialagoak	Jarduera	Lanbide teknikoak
Hunkiberatasuna	Eremu pribatua	Logika	Eremu publikoa
Ahultasun fisikoa	Zaintzailea	Indar fisikoa	Hornitzailea
Mendekotasuna	Mendeko posizioak	Independentzia	Botere-posizioak
Lotsa	Sexu-desiraren objektua	Balioa	Sexu-desiraren subjektua

Rol horiek gero eta argiagoak dira haurrak familia-ingurunetik irten ahala, eta beste jarduteko modu eta harreman-modu batzuekin topo egin ahala.

5-7 urte

Haurtzaroko honetan, eskema kognitiboak sortzen dira generoari lotutako itxaropenekin: interesak, jarduerak eta lanbideak. Fase honen ezaugarria da estereotipoekiko duen zurruntasuna. Gaitasun kognitiboak ez du malgutasunik, haurrak segurtasuna barneratzen ari direlako eta, horregatik, entzuten dituzten ipuinen hitz bat bera ere aldatuko ez duen ingurune iragarle bat behar dutelako.

Behin eta berriz galdetuko dute gauzen zergatia, ikusten dituzten aldakuntzak barnera ditzaketela ziurtatu nahi dutelako. Horren truke, onartzeko gaitasun oso handia dute, eta horren aurrean harridura normaldu eta oso azkar txerta daiteke beren pentsamendu-eskemetan. Beste era batera esanda, aurreiritziak ez dira oraindik agertzen.

Genero-roleri eta -adierazpenei dagokienez, areagotu egiten dira mutilen edo nesken jostailuekiko zaletasunak eta jolasetako bereizketak.

¹⁴ Rol eta estereotipo horiek eraikuntza kultural bat dira, eta, lehen adierazi dugun bezala, fikzio bat; horrexegatik pixkanaka aldatzen ari dira. Hala eta guztiz ere, presentzia eta eragin dezente izaten jarraitzen dute haurtzaroko etapa guztietan.

Printzesa izan nahi duten neskatoak:

Valentyna (6 urte) itsututa dago printzesen ipuinekin. Bere gustukoena Edurnezuri da. Bere jolasetan, beti errepikatzen du Edurnezuriren istorioaren eskema: neskato umezurtza + amaorde gaiztoa + printze salbatzailea. Bere jokoan esku hartu beharko genuke? Nola? Zertarako?



8-10 urte

Zortzi urtetik hamar urtera bitartean, genero-estereotipoak sortzen dira nortasun-ezaugarriekin (neska lasaiak vs mutil aktiboak, adibidez) eta lorpen-eremuekin (neska pasiboak vs mutil lehiakorrak). Aipatzekoa da maskulino tradizionalan sozializatutako haurrek etapa honetan zurruntasun handia erakusten dutela, eta gainerakoek – batez ere genero-sozializazio tradizionala inposatzen ez zaienek– malgutasun gehiago dutela. Bereizketa hori, neurri batean, mugimen-trebetasun finak garatzearen ondorioa da. Mutil horiek muskulatura eta indarra garatzen duten jolas aktiboagoetan aritzeko joera dute eta gainerakoek, aldiz, joko zehatzagoak eta delikatuagoak egiten dituzte.

Rolen segregazioa, berriz, gero eta handiagoa da. Jarduera tipifikatuetarako joera indartu egiten da, nahiz eta neskek mutilen jardueretik interesa oraindik baduten.

Nola jokatzeko dugu?

Ordubeteko jolas librea utzi zaie haurtxokoko koltxonetetan ibiltzeko. 10 urteko mutilak koltxoneten erdi-erdian jarri eta wrestling-ean (borrokak) jokatzeko ari dira; eta gainerakoak beste joko batzuekin “ring”-aren ertzak betetzen ari dira. Adibidez, haur batzuek etxetxo bat eraiki dute eta barruan jolasten ari dira. Jolasaren emozio eta mugimenduarekin mutilak ez dira konturatzen beren kideen etxea suntsitzen ari direla eta ondoeza eta haserrea sortzen ari direla.

Zergatik antolatu da horrela espazioa? Jokoa eteteaz gain, zer beste esku-hartze egin litezke?


10-12 urte

Hamar urtetik hamabira beste genero batzuen ezaugarriekiko intolerantzia areagotu egiten da, baina adinak aurrera egin ahala, malgutasun handiagoa lortzen da. Etapa horretan, areagotu egiten da generoak tipifikatutako jokabideekiko adostasuna, nahiz eta segregazioa ez den hain nabarmena.

Denak dantzan:

Aitorrek (11 urte) oso gustuko ditu TikTok-eko dantzak. Bere burua grabatzen du modan dauden pauso biralak dantzatzen. Gainerako mutilei ez zaie hori gustatzen eta maritxu deitzen hasi dira.

Nola esku har zenezake egoera horretan?



Prozesu hori ikusita, argi dago hezitzaileen zereginetako bat genero-sozializazioaren eta sexualitatearen esparruko arau sexistak kolokan jartzea izan litekeela, besteak beste oinarri nagusitzat parekidetasuna, berdintasuna, errespetua eta ongizatea izanago dituen haurren sexualitatearen garapen osasungarria ahalbidetzeko.

HEZKIDETZA

Parekotasunean, berdintasunean, errespetuan eta ongizatean oinarritutako sexualitate osasungarrian hezteak zentzua du hezkidetzatik egiten bada bakarrik. Baina, zer da hezkidetza?

Hezkidetza da hezteko modu bat, zeharkako ardatz gisa genero-berdintasunaren integrazioa duena. Hau da, haurren gaitasunak osorik garatzea du helburu, genero-roleri lotutako oztopoak kenduz.

Beraz, gure inguruko joerak identifikatzen eta gizarte-ereduak zalantzan jartzen jakiteko desikaskuntza-prozesu bat da. Hezkuntza-eredu hori ez da ikasgeletan bakarrik aplikatu behar; izan ere, haurren hezkuntza-prozesuaren (formala eta informala) parte den edozein pertsonak du prozesu hori berdintasun, errespetu edo elkartasunaren balioetan oinarritzeko ardura.

■ SARE SOZIALAK ETA INTERNET

HIKTak (Harremanen, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) ezinbesteko tresna bihurtu dira gure harremanetan. Onura asko dituzte: urrun dauden pertsonekin harremanetan jartzea errazten dute, informazio ugari eskura jartzen dute, etab.. Hala ere, tresna horiek modu desegokian erabiltzeak ondorio kaltegarriak izan ditzake.

Alde batetik, sare sozialak gainbegiratu gabe erabiltzeak adingabeen gehiegizko esposizioa ekar dezake. Gainera, pertsona anonimoez edo norberaren online ingurunezko pertsonen egindako epaiketak eta iritziak ere azaltzen dira. Horrek eragina izan dezake autoestimua garapenean.

Bestalde, hurrek Internet eta Sare Sozialak behar bezala gainbegiratu gabe kontsumitzen badituzte, litekeena da beren sexualitatearen oinarri edo ikasbide izateko eredu desegokiak topatzea. Adibidez, pornografiatik ikasita sexu-harremanen ideia okerra izan dezakete, edo *tradwife*¹⁵ edo *incels*¹⁶ bezalako fenomeno biralek zabaldukoak diren ideia sexistak barnera ditzakete.

HIKTak gaizki erabiltzea arriskutsua izan daitekeenez, adingabeei tresna horiek erabiltzeko laguntzea eta hezteak. Horretarako, ezinbestekoa da haurtxokoetan pantailak erabiltzeko aukera izanez gero, bertan dagoen hezitzailearen bidez egitea.

HIKTen gailurrean jaiotako biztanleei «Natibo digitalak» deitu zaie, hau da, sozializazio-prozesua pantaila baten bidez egiten dute beren bizitzako lehen urteetatik. Errealitate horri aurre egin behar zaio: izan ere, digitalitatean jaio den belaunaldiak, pantailak erabiltzen eta aurrerapen teknologikoez barneratzen ikasteaz gain, mundua ikusteko eta egoteko modua aldatu du; horregatik, garrantzitsua da helduek beren zailtasun teknologikoen aurrean amore ez ematea eta belaunaldi berri horien kezka eta trebetasun berrietan laguntzaile aktibo izatea.

Digitala eta sexista:

Ibai (12 urte) haurtxokoan mugikorra duen lehen umeetako bat da. Bera eta bere lagunak oso gustuko duten bideojoko baten streamingak eta bideoak ikusten hasi dira. Bideoan ikusten ari diren streamerrak iruzkin hauek egiten dituela entzun dezakezu: «Bideojokoak ez dira neskontzat», «zoaz garbitzera», «merezita du, beso-motz izateagatik»... Erabiltzen dituen "gamer" termino guztiak ulertzen ez badituzu ere, badakizu ez dela diskurtso positibo bat artikulatzen ari. Zer egin zenezake egoera honetan?

¹⁵Ikusi definizioa glosarioan.

¹⁶Ikusi definizioa glosarioan.

■ PORNOGRAFIARI BURUZKO GOGOETA ARO DIGITALEAN

Natibo digitalen hezitzaile gisa aurrean dugun erronketako bat da hurrek alde handia ateratzen digutela HIKTen erabileran. Horren ondorioz, gerta daiteke tresna horiek inork gainbegiratu gabe erabiltzea, eta beren adinerako diseinatuta ez dauden edukiak eskuratzea, adibidez, pornografia.

Nahiz eta pornoaren industria beti egon den eta, beste garai batzuetan, emakumeen biluziak zituzten aldizkarien irrika izaten zen, gaur egun sexu-edukiak eskuragarriagoak dira doako atarien edo hainbat sare sozialen bidez. Material pornografiko horiek askotan praktika ez oso seguruak, infekziosoak edo indarkeriazkoak erakusten dituzte.

Gazteek pornoa bide horietatik eskuratzea saihestezina da, gure kontroletik ihes egiten baitu; eta are gehiago debekatuta dagoenak kutsu erakargarria hartzen duen eta haurrak agintearen mugak aztertzen hasten diren adin horietan. Gure esku dagoena da sexualitatea deskubritzeko bidaia horretan laguntzea, porno mainstream-aren mezuei sexu-hezkuntzako irakaskuntza positiboekin aurre eginez:

- Neskatoei eta mutikoei jakinaraztea pornoa fikzio bat dela eta erakusten dituen sexu-harremanak errealitatetik oso urrun daudela, beste fikzio batzuen kasuan azaltzen eta laguntzen dugun bezala.
- Pornoak era guztietako gorputzak erakusten ditu, eta ez beti zentzu positiboan; izan ere, gorputz horietako batzuk sexu-praktika ez hain errespetuzkoekin edo bortitzagoekin lotzen ditu. Hurrei azaldu behar zaie gorputz guztiek zaintzea eta errespetatzea merezi dutela.
- Pornoaren edukirik nabarmenetako batzuk menderatzearekin eta indarkeriarekin zerikusia dutenak dira eta, beraz, sustatu behar da berdintasunean oinarritutako sexu-harremanak atsegingarriak direla eta guztietan adostasuna funtsezkoa dela.

Mezu horiek adibide batzuk baino ez dira; garrantzitsuena da ziurtatzea pornografiara iristen direnerako kalitatezko sexu-hezkuntza ematea, hurrek jaso ditzaketen mezu kaltegarriari aurre egiteko.

■ HAURREN ESKUBIDEAK ETA SEXU-ESKUBIDEAK

Hurrekin egiten den lan orok haien eskubideak bete behar ditu, eta horiek ezagutzea eta errespetatzea sustatu. Sexu-hezkuntzaren eremua ez da salbuespena. Hala bada, haurtxokoetako langileek 1989ko azaroaren 20an onartutako Hurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako eskubide horiek bermatzen direla ziurtatu beharko dute. Haur guztien eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak jasotzen dituzten 54 artikuluetatik oinarritzko 10 eskubide atera ditugu.

1. Berdintasunerako eskubidea, arrazagatik, erlijioagatik edo nazionalitateagatik bereizkeriarik egin gabe.
2. Fisikoki, buruz eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen, babes berezia izateko eskubidea.

3. Izena eta nazionalitatea izateko eskubidea.
4. Elikadura, etxebizitza eta arreta mediko egokiak izateko eskubidea.
5. Desgaitasuna duten haurren hezkuntzarako eta arreta berezirako eskubidea.
6. Familiek eta gizarteak ulertzeko eta maitatzeko eskubidea.
7. Doako hezkuntza izateko, ondo pasatzeko eta jolasteko eskubidea.
8. Arriskua dagoenean lehentasunezko arreta eta laguntza jasotzeko eskubidea.
9. Abandonuaren eta haurren lanaren aurka babestuak izateko eskubidea.
10. Mundu guztiaren arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Hori aplikatzea gobernuen betebeharra da, baina beste eragile batzuen betebeharrak eta erantzukizunak ere zehazten ditu: irakasleak, osasun-arloko profesionalak, ikerketaren esparrukoak, eta haurrak berak.

Era berean, pertsona askok ez dakiten arren, emakumeen edo haurren eskubideak bezala, sexualitateari buruzko eskubideak 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasota daude. Eta, ondoren, gizarte-mugimenduen aldarrikapenari esker, zabaldu eta dibertsifikatu egin dira. Giza eskubideen artean 9 sexualitatearekin lotuta daude, nahiz eta askotan beste batzuen aldean bigarren mailakotzat hartzen diren. Argi dago ahalegin handiagoa egin behar dugula oinarrizko giza eskubide gisa uler, ikas eta aitor daitezen:

1. Sexu-askatasunerako eskubidea.
2. Gorputzaren sexu-autonomiarako, sexu-osotasunerako eta sexu-segurtasunerako eskubidea.
3. Pribatutasun sexualerako eskubidea.
4. Sexu-berdintasunerako eskubidea (sexu-ekitatea).
5. Plazer sexualerako eskubidea.
6. Sexu-adierazpen emozionalerako eskubidea.
7. Ezagutza zientifikoan oinarritutako informaziorako eskubidea, zentsura erlijioso edo politikorik gabe.
8. Sexu-hezkuntza orokorrerako eskubidea.
9. Sexu-osasunaren arreta klinikorako eskubidea.

■ Sexu-indarkeria haurtzaroan

Orain arte, sexu-hezkuntzak, haur guztien eskubidetzat hartzeak eta gorputzen, identitateen, adierazpenen, orientazioen eta abarren aniztasuna positiboki sustatzeak duten garrantzia landu dugu. Hala ere, ezin dugu atal hau amaitu haurren garapen integral normalari modu basatian eragiten dion errealitate bat aipatu gabe: sexu-indarkeria.


Save de Childrenek 2021ean emandako datuen arabera, Estatuan haurren % 10-20ek sexu-indarkeria jasaten dute. Tarte hori hain zabala da, isildutako arazoa delako eta detektatzen eta artatzen zaila delako. Arazoaren azpierreregistroa kontuan hartuz ehuneko handienera jotzen badugu, horrek esan nahi du haurtxokoetan tratatzen ditugun bost haurretatik bat sexu-indarkeriaren biktima izan dela.

Zifra kezagarria da, baina hori gertatzeak duen eraginaz gain, garrantzitsua da beste datu adierazgarri batzuk ezagutzea:

- Indarkeria horren % 44,7 13 eta 16 urte bitartean gertatzen da, baina haurrak abusuak jasaten hasten diren batez besteko adina oso goiztiarra da, 11 urte eta erdikoa.
- Kasuen % 78,9an biktimak neskek eta nerabeak dira. Adin-tarteen arabera ere genero-desberdintasunak daude.
- Abusatzaileen % 84 inguru haurren ezagunak dira, neurri handiagoan edo txikiagoan. Kasu horien ia erdiak (% 49,5) familia-ingurunean gertatzen dira, eta aita izaten da erasotzaile ohikoena (% 24,9).
- Kasuen erdia baino ez da salatzen, eta gehienetan biktimak jarri zuen salaketa (% 33,8), ondoren amak (% 28) eta bi gurasoek (% 13,7).
- Prozesu judizialean, hurrek, batez beste, lau aldiz azaltzen dute zer gertatu zaien.

Datu horiek kontuan hartuta, ulertuko dugu haurrentzat ingurune seguruak sortzeak duen garrantzia, indarkeria hori prebenitzeko neurririk onena baita. Ingurune horiek entzuteari eta zaintzeari lehentasuna eman behar diote, eta bertan emozioei eustea -hezitzaileengandik hasita- birbiktimizazioa ekiditeko tresna bat izango da.

INGURUNE SEGURUA



Hezkuntza ez formalaren eremua indarkeria horren adierazle batzuk detektatzeko espazioa izan daiteke. Gainera, ingurune seguruak sortu badira, haurrek eta nerabeek horrelako gertakari batzuk agerian jar ditzakete. Kontuan izan behar dugu neskek (biktima gehienak direlako hitz egingo dugu beraiez) entzunak izateko eta emozioak eusteko beharra dutela, eta hori topatzen duten lekuan eta pertsonarekin hitz egingo dutela beren sexu-indarkeriako historiez. Horrek adieraziko du ondo jokatu dela, errespetuz eta ulermenez tratatuak izan direla eta indarkeria jasan duten etxe edo ingurunea ez den horretan leku seguruia eskaini zaiela.

Neskatoen aurkako sexu-indarkeriak emakumeak bizitzako lehen urteetatik otzantzeko eta kontrolatzeko funtzioa betetzen du, feminitatea sortuz, hau da, beldurraren, lotsaren eta erruaren bidez gizonekin harremanak izateko modu bat ezarriz, baina baita sexualitatearekin eta norberaren gorputzarekin ere. Abusatzaileak lotsa eta erru horiek baliatzen ditu neskatoa jasaten ari denaren erantzule egiteko. Bere autoritate-posizioak, gainera, aukera ematen dio neskaren konfiantza txikitzeko eta mehatxu egiteko kontatzen badu inork ez dioa sinetsiko; eta horregatik behartzen du indarkeria hori isilpean gordetzera.

Kasu gutxi hautematen dira eta salaketa egitea zaila da, neurri handi batean, nesken sinesgarritasuna zalantzan dagoelako. Helduek gehiegizko irudimenari edo beste bitarteko batzuei egozten diete neskatoen indarkeriaren narratiba, eta haien eskema mentalean ez da erraz sartzen neskato horiek aiten, aitonen, osaben, anaien edo amaren bikotekide berrien sexu-erasoak jasaten ari direnik. Familia perfektuaren ideala oztupo bat da neskak behar bezala babesteko.

Sexu-indarkeriak norberaren identitatearen aurkako gaitzespena eragiten du, eta makina bat ondorio biktimaren gorputzean eta sexualitatean, harremanetan eta gizarte-portaeran ere. Neskato baten aurkako sexu-indarkeria egiten denean, ez dira hondatzen haren gorputza eta sexualitatea bakarrik, bainta haren autokonfiantza, segurtasuna, zaindu behar luketen pertsonetikiko harremana, eta egokia denari eta ez denari buruzko pertzepzioa ere.

Entzunak izateko espazio seguruak sortzeko, garrantzitsua da biktima diren haurren premiak erdigunean jartzea. Horrek esan nahi du, batez ere, **haurrei eta nerabeei sinestea** sexu-indarkeriaz hitz egiten dutenean, gaiari buruzko aipamen estalia egiten dutenean, hari buruzko jakin-mina agertzen dutenean, sekretuez hitz egiten dutenean edo, jakinarazte bat izan gabe, beste edozein aipamen egiten dutenean, zerbaitek kezkatzen dituenaren edo zerbaitek gertatzen ari zaienaren susmoak sortzen dituen.

Haienez garrantzitsua da beldurra, lotsa, errua... edo dena batera adierazteko era guztiei **modu aktiboan entzutea** eta emozioei eustea.

Ezagutzen dituzten, hazten ikusi dituzten, laguntzen eta zaintzen dituzten neskatoen sexu-indarkeriari buruzko narratibak entzuteak min handia eragin diezaielako hezitzaileei. Horregatik, garrantzitsua da izango duten erreakziorako prestatuta eta babestuta egotea. Ekintza horiek berehala gelditu nahi izatea, biktimak edozein modutan babestu nahi izatea beren lanarekin konprometituta dauden profesionalen erantzun normala da; baina kontu handiz ibili behar da, batez ere, asmo onez –baina ez beti fenomenoak ulertuta- adierazten eta egiten denarekin.

Haurtxokoetako hezitzaileek ez dituzte artatuko indarkeria horren biktima izan diren haurrak, horretarako dispositibo egokiak daude, bai eta jarduteko protokoloak ere. Hala ere, hezitzaile horiek egin dezaketena da kontuan izatea familia guztietako haurrek bizi dutela sexu-indarkeria, eta haien hitzak zalantzan ez jarri aitzak ezagutzen dituztelako eta ezin dutelako sinetsi alabei kalte hori eragin dietenik. Besteak bezalako neskato bat izateko espazio bat izaten lagundu diezaiokete, behatua edo modu berezian tratatua izan gabe jolastu ahal izateko.

Kontu handiz jokatu beharko da, baina etorkortasunik gabe; neska hori zer pasatzen ari den ulertu beharko da, baina horregatik ez zaizkio mugak jarriko taldeko beste kideekiko harremanetan horiek gairatzen ari bada; erne egon beharko da ager daitezkeen sintoma fisiko eta emozional desberdinei begira, baina ez da estutuko gertatzen ari dena jakinarazteko.



Eta, batez ere, neskatoen moldatzeko gaitasuna indartu beharko da, indarkeria horren ondorioei baldintza hobetan aurre egin ahal izateko.

Estigmatizatu gabe eta jolasten eta gozaten lagunduz modu adikor eta arretatsuan begiratu eta tratatzea da laguntzeko modurik onena.




Goragalearen min handia:

Amalenen (9 urte) gurasoek txandaka egiten dute lan eta, horregatik, batzuetan osaba joaten zaio bila haurtxokora. Egun batean, osaba ikustean, Amalen negarrez hasi zen. Gaur osaba bere bila itzuli da eta, oraingoan, botaka hasi da. Hezitzaileak zer gertatzen zaion galdetzean, tripako mina duela besterik ez du esaten. Zer egin dezakegu egoera honetan?



3.

HEZITZAILEEN ZEREGINA



3.1 Helburuak

Neskatoen eta mutikoen sexu-hezkuntzan hezitzaileen helburu nagusia da haiei laguntzea parekotasunean, berdintasunean, errespetuan eta ongizatean oinarritutako sexualitatea garatzen. Horretarako, material honetan garatu diren eremuekin lotutako helburu batzuk planteatzen dira:

- **Neure burua ezagutzen ari naiz.**

- **Gorputza**

- Haurrak beren gorputzaren autoaurkikuntzan laguntzea eta gidatzea, beren mugak, pribatutasuna eta ahalkea errespetatuz, beren garapen-mailaren arabera.
- Gorputza ezagutzea eta bere garapenaz jabetzea.
- Gorputzaren zaintza eta ongizatea bultzatzea.

- **Beste gorputz batzuk**

- Haurrei beren bizitzan zehar aurkituko dituzten gorputzen aniztasuna erakustea, eta gorputz horiekiko errespetuan heztea.
- Beste pertsona batzuek ezarritako gorputz-mugak, muga emozionalak eta afektiboak errespetatzen irakastea.

- **Emozioak**

- Haurrak gidatzea beren emozioak identifikatu eta kudeatzeko orduan.
- Haurren garapen emozionala indartzea.
- Norbere sentimendu eta emozioez jabetzea.

- **Identitateak eta genero-adierazpena**

- Kontzeptu hauek ulertzea: sexu biologikoa, genero-identitatea eta -adierazpena eta desiraren adierazpena.
- Neskei eta mutilei beren sexu- eta genero-identitatea aztertzen laguntzea, haien zalantzei erantzunez.
- Genero-aniztasunarekiko errespetua barneratzea.

- **Nire harremanak**

- **Familia**

- Familia-ereduen aniztasuna positiboki ikusaraztea eta ulertzea.
- Familiekin komunikazio erraza izatea, sexu-hezkuntzaren arloan modu koordinatu eta osagarrian jardun ahal izateko.
- Familiei sexualitate positiboan eta berdintasunean hezten laguntzea.

- **Lagunak**

- Errespetuan, enpatian eta konfiantzan oinarritutako pertsonen arteko harremanak sustatzea.
- Erlazio mota bakoitzaren ezaugarriak identifikatzeko gai izatea.

- Berdinen taldeen prestakuntzan laguntzea, haien arteko harremanak berdintzen diren bitartean, haurren trebetasunak behar bezala garatzen direla bermatzeko.
- **Intimitatea eta pribatutasuna**
 - Hautzaroan sexu-jokabideak identifikatzen eta kudeatzen laguntzea.

● **Kultura eta ingurunea**

- **Aniztasuna eta kulturartekotasuna**
 - Kultura-, gorputz- eta sexu-aniztasunaren aberastasuna erakustea eta balioestea
- **Genero-rolak eta -estereotipoak**
 - Berdintasunean heztea, haurtzaroko etapa bakoitzean hartzen dituzten rolak eta estereotipoak aztertuz eta deseraikiz.
- **Hezkidetzak**
 - Etxeko harremanetan, eskolan, haurtxokoa eta komunitatean berdintasuna sustatzea.
 - Berdintasunezko eta estereotipo sexistarik gabeko bizitza-proiektu bat eraikitzeko oinarriak ezartzea.
- **Sare sozialak eta Internet**
 - Pantailak erabiltzen laguntzea eta sexualitatea erabat garatzeko onuragarria izan daitekeen edukia eta kaltegarria izan daitekeen edukia bereizten laguntzea.
- **Eskubideak**
 - Haurren oinarrizko eskubideak eta hurrei dagozkien sexu-eskubideak ezagutzea eta horiek betetzea.
 - Errespetuan eta inklusioan oinarrituta, pertsona guztien giza eskubideak ulertzea eta aitortzea.
- **Sexu-indarkeria haurtzaroan**
 - Haurren aurkako sexu-indarkeriaren ezaugarri nagusiak ezagutzea.
 - Entzute-gune seguruak sortzea sexu-indarkeriaren biktima diren haurrentzat.
 - Neskato biktimei laguntzea, hezkuntza ez formaleko espazioak dituen ahalmenetatik abiatuta, birbiktimizatu gabe.
- **Balioak**
 - Neskei eta mutilei laguntzea sexualitateari lotutako balioak bereganatzen eta, horretarako, haien urratsak gidatzea gorputzekiko eta mugekiko (norberarenak eta besteenak) errespeturantz, elkarreraginean egon daitezkeen kulturekiko errespeturantz, eta, azken batean, sexualitate onuragarri baterantz.
 - Norberaren balioak, familiakoak eta kolektiboak identifikatzeko gaitasunak lantzea.
 - Kontzientzia hartzea eta zainketen arloko prestakuntzarako baliabideak.

3.2. Oinarrizko printzipioak

Aurreko puntuan aipatutako helburuak betetzen direla bermatzeko, haurtxokoetako langileek funtsezko printzipio hauek bete beharko dituzte:

1. **Espazio seguruak eta zainduak.** Ezinbestekoa da haurrak seguru eta zainduak sentitzea sexualitatearen gaiak sakon landu ahal izateko. Beraz, ezinbestekoa da haurrak libre sentitzeko ingurune bat sortzea, beren jakin-mina esploratu, galdetu eta, azken batean, asetzeko.
2. **Konfidentzialtasuna.** Segurtasuna sentitzeko ezinbestekoa da konfidentzialtasuna, betiere haurren ongizatea bermatuta badago. Sexualitatearekin lotutako gaiak lantzerakoan indarkeria-edo arrisku-egoeraren bat hautematen edo susmatzen bada, modu aktiboan entzunko zaio emozioei eutsiz eta, aldi berean, adingabearen legezko tutoreei edo, halakorik ezean, komenigarritzat jotzen denari (gizarte-langilea, irakasleak...) informazioa nola eta noiz eman behar zaien balioztatuko da.
3. **Begirada kritikoa.** Neska-mutilen gaitasun kritikoa sustatu nahi da hainbat gairi lotutako informazio eta edukien aurrean (sexismoa, LGTBIQA+ diskriminazioa, informazio desegokiak, gorputz-aniztasuna..).
4. **Malgutasuna.** Zerbitzuak malgua izan behar du, eta haurren beharretara eta gaitasunetara egokitu. Horregatik, garrantzitsua da sexualitatea lantzeko espazio kolektiboak eta indibidualak sortzeko aukera ematea.
5. **Zeharkakotasuna.** Ez da beharrezkoa izango sexualitatea lantzeko espazio finko bat ezartzea. Horren ordean, haurren sexualitatea garatzeko jarduerak zeharka egingo dira ikasturtean zehar haurtxokoan egiten diren jarduera guztietan.
6. **Moldagarritasuna.** Gainera, parte hartu ahal izango dute sexu-hezkuntza modu esplizituagoan lantzeko jardueren, materialen eta espazioen diseinuari buruzko erabakietan.
7. **Dinamismoa.** Haurren beharren arabera, materialaren edukiak eguneratu ahal izango dira.
8. **Koordinazioa.** Langileak udalerrietako sexologia-zerbitzuekin, osasun-zentroarekin eta prest agertzen diren gainerakoekin koordinatuko dira, ongizatean oinarritutako sexu-hezkuntza integrala sustatzeko.
9. **Izaera komunitarioa.** Sexualitateak lotura zuzena du komunitatearen sinesmen eta balioekin eta, beraz, garrantzitsua da jarduerak testuinguru horretan kokatzea eta familiekin edo tutoreekin esku-hartzeak proposatzea.
10. **Talde-lana.** Sexu-hezkuntzarekin lotutako jarduerak irekiak izan daitezke eta erreferentziazko hainbat pertsonak parte har dezakete gai desberdinak lantzeko; era berean, hezitzaileen lana indartuko da eta hausnarketak aberastuko dira ikuspuntu berriak emanez.

3.3 Jarrerak

Atal honetan, alde batetik, haurtzaroan sexualitate osasungarria eta aberasgarria lantzen laguntzen duten jarrerak eta estrategiak deskribatzen dira. Bestalde, dokumentuan zehar landu diren hiru adin-tarteetako neska-mutilengan aurki ditzakegun beharrak, interesak eta berezitasunak eta praktikan jar daitezkeen erantzun-ereduak ere aipatzen dira.

Hazkuntzarako jarrerak eta estrategiak

Kontuan izan behar da, gure asmoa ez bada ere, haurren hezkuntza-testuinguruaren parte garenez, ezinezkoa izango dela sexu-heziketarik ez egitea; izan ere, modu esplizituan edo inplizituan, kontzientean edo inkontzientean, sozializazioak pertsona guztien sexualitateari buruzko balioak eta itxaropenak txertatzen ditu. Beraz, erreferentziazkoak izango gara, eta ezingo dugu ahaztu prozesuaren erdigunean haurrak daudela eta, aniztasuna, autodeterminazioa eta autonomia errespetatuz, beren helburuak betetzeko bitartekoak eta estrategiak eskainiko dizkieten laguntzaileak izango garela.

Egiten dizkiguten galderak interpretatzen eta erantzuten jakitea oso garrantzitsua da ikaskuntza-esperientziak egokitzeko orduan.

Galderei aurre egiteko estrategiarik baliotsuenetako bat da beste galdera batekin erantzutea. Horrela, aldeztu aurretik dituzten ezagutzak aktibatuko ditugu, haien autonomia eta hausnarketa sustatuko ditugu, eta hobeto jakingo dugu beren jakin-mina norantz bideratuta dagoen, haurra eskatzen ari den informazioa emanez.

Era berean, garrantzitsua da planteatzen dizkiguten gaiak arazo ez bihurtzea, oso desberdinak izango baitira gure heldu-betaurrekoekin begiratzean: EZ DA DEBEKATU BEHAR, EZTA BAIMENDU ERE, LANDU EGIN BEHAR DA. Garrantzitsua da aniztasuna aitortzea eta gozamina eta plazera esploratu eta topatzea, bizitza atsegina eta zoriontsuagoa izan dadin.

Ezagutzen ez dugun erantzunik badago, horiek bilatu ditzakegu eta, erantzun aurretik, haien adinari egokitutako informazio-iturriak eskaini. Baina kontua ez da erantzunak zaintzea bakarrik, sexualitateari buruz hitz egitea osasungarria eta positiboa dela transmititzea baizik, norberaren eta gainerakoien sexualitateari buruzko jakin-mina piztuz.

Sexu-miaketari dagokionez ere, tratatzean jarrera irekia izan behar da, debekatu edo baimendu gabe; aitzitik, non, nola eta zergatik egiten den landuz. Izan ere, galderak egiterakoan, zenbat eta irekiagoak izan, orduan eta gehiago irekiko dute haurren ezagutza-esparrua.

	Beharrak, interesak eta berezitasunak	Erantzun-eredua
5-7	<ul style="list-style-type: none"> ● 5 urte bete ondoren, gorputzaren irudiaz eta inguruneak beraiek nola ikusten dituen kezkatzen hasten dira. ● Sexuz aldatu nahi izatea, gorputz mehea eduki nahi izatea... erakuts dezakete. ● Genitalak jendaurrean erakutsi eta ukituko dituzte, edo besteei arropa kenduko diete. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Gorputz desberdinak agertzen diren liburuak edo bestelako baliabideak eskaintzea. ● Genero-identitateaz eta -estereotipoez hitz egitea. ● Gorputzen intimitatea eta pribatutasuna lantzea. ● Familien aniztasuna eta etxean harreman estuak izateko moduak txertatzea.
8-10	<ul style="list-style-type: none"> ● Adin hauean jada publikoa eta pribatua bereizten dituzte, eta sekretuak gordetzen dakite. ● Erantzun sakonagoak eta zientifikoagoak bilatuko dituzte, batez ere pubertaroari buruzkoak, eta erantzukizunari eta zaintza fisikoei buruzko balio-eskala eta etika garatuko dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ematen diren erantzunak zaintzea eta jakin-mina piztea. ● Sexu-desiraren orientazioei buruz argi eta aurreiritzirik gabe hitz egitea. ● Erreprodukzioa bere adinerako termino egokiek azaltzea. ● Pubertaroarekin datozen aldaketak azaltzea. ● Zalantzei eta jakin-minari aurre egiteko informazio- eta ezagutza-iturri fidagarria izatea. Ez badugu, informazioa bilatzea. ● Telesailak edo filmak sexualitateari buruzko gaiei buruz hitz egiteko aprobetxatzea. ● Gizarte-balioei dagokienez, jokabide-eredu ona eskaintzea. ● Gertakarien eta iritzien arteko aldea zehaztea. ● Bizikidetzeta eta elkarren arteko zaintza sustatzea.
10-12	<ul style="list-style-type: none"> ● Nerabezaroaurrean estetikari buruzko kezka handiagoa adierazten hasten dira. Beren 	<ul style="list-style-type: none"> ● Eztabaidetarako prest egotea, aurreiritzirik edo autoritaterik gabeko jarrerarekin.

	Beharrak, interesak eta berezitasunak	Erantzun-eredua
	<p>gorputzekiko asegabetasuna erakuts dezakete eta beren autoestimua kaltetua izan daiteke.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Pertsona biluzien irudiak edo sexu-eszena inplizitu eta esplizituak ikusteko jakin-mina erakusten hasten dira, baita hizkuntza sexualagoa erabiltzen ere. ● Hilekoa, amets bustiak edo fantasia sexualak bezalako gaiak argitzeko beharra dute. Gainera, bikote-harremanekiko interesa erakusten dute. ● Beren sexualitatea berdinen arteko jolasen bidez aztertzen dute 	<ul style="list-style-type: none"> ● Pubertaroko aldaketak azaltzeko eta laguntzeko denbora izatea. ● Sexualitateari buruzko informazioa bilatzeko baliabideak eskaintzea. ● Sexu-jokabideez eta praktika ez-kutsakorrez eta ez-sorgarriez hitz egitea, bai eta infekzioen eta sortzeen prebentzioaz eta babesaz ere. ● Autoestimua indartzeko balorazio positiboak eta esperientzia atseginak eskaintzea. ● Emozioez eta emozioak kudeatzeko moduez hitz egitea. ● Adiskidetasunaren balioak zaintzea eta bikote-kontzeptua aberastasunetik lantzea.

3.4. Hezitzaileen eta familien arteko harremana


Aurreko ataletan ikusi dugunez, familia da pertsonen lehen laguntza-sarea eta garrantzitsuena, are gehiago haurtzaroan. Horregatik, oso garrantzitsua da haurtxokora joaten diren haurren familiekin harreman errazak eta adeitsuak izatea.

Badakigu ez dela lan erraza, are gehiago familiako txikienean sexu-heziketari buruz ari garenean. Une sozial asaldatu batean gaude, eta nahasketak eta informazio-faltak arazoak eragin ditzakete, familien eta hezkuntza-taldearen arteko gatazkak sortuz.

Hona hemen familiekin jarduteko lagungarriak izan daitezkeen zenbait estrategia:

- Eman familiei haurtxokoan egingo diren jardueren berri.
- Partekatu familiekin haurtxokoetan egiten dituzuen esku-hartzeen oinarri diren material teorikoak. Adibidez, M8an edo U28n jarduera bereziak egiten badituzue, aldez aurretik jakinarazi landuko diren materialak eta horien justifikazio teorikoa.

- Material horiei buruzko zalantzarik izanez gero, familiekin informazio-saio bat antolatu. Saio hori balia daiteke haurren tutoreek ezagutzen ez dituzten kontzeptuak barneratzeko edo beren irizpideetan eragina izan dezaketen gezurrak ezeztatzeko (adibidez, trans haurrei buruzko bulo ugari sortu dira, hala nola hiru urterekin hormonatzen hasten direla).



4. **BALIABIDEAK**

Atal honetan idatzizko, ikusizko eta soinuizko baliabideak eskaintzen dira, bai hezitzaileentzat, bai haurrentzat. Dokumentu horiek material osagarri gisa erabil daitezke haurtxokoetan sexu-hezkuntza lantzeko, bai eta tresna gisa edo prestakuntza-material osagarri gisa ere.

Hezitzaileentzat

Filmak eta dokumentalak	<ul style="list-style-type: none"> ● XXY (86 min) ● Con amor, Simon (110min) ● Wonder Woman y el profesor Marston (108 min) ● 80 egunean (105 min) ● Disclosure: ser trans en Hollywood (100 min) ● Pray away: reza y dejarás de ser gay (101 min) ● La vida y la muerte de Marsha P. Johnson (105 min) ● Yes we fuck (60 min) ● Tomboy (82 min) ● 20.000 especies de abejas (129 min)
Telesailak	<ul style="list-style-type: none"> ● Bigmouth (25 min) ● Sex Education (45 min) ● El punto muerto: un parque paranormal (25 min) ● Steven Universe (11 min) ● Heartstopper (30 min) ● Atypical (30 min) ● Special (30 min) ● Sense8 (60 min) ● Los principios del placer (50 min) ● El amor en el espectro autista (44 min)
Bideoak	<ul style="list-style-type: none"> ● Los pitos y las tetas 4 min ● Diversidad sexual 8min ● Niñas con pene, niños con vulva. Entender para acompañar 84 min ● Gona gorria bideoklipa 3 min ● Neskak eta mutilak. Norbera, den bezalakoa 3 min ● In a HeartBeat 4 min ● Eso no se pregunta: Transexuales 40 min ● Eso no se pregunta: Drag Queen 43 min ● No solo duelen los golpes 85 min ● Tu cuerpo, tu campo de placer 5 min
Gidak eta dokumentuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Sexu-heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat ● Sexu-heziketa lantzeko eskuliburua ● Educación de las sexualidades. Los puntos de partida de la educación

	<p><u>sexual</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● <u>Sexualitatearen koloreak</u> ● <u>Neskak eta mutilak. Identitatea eta gorputza</u> ● <u>Sexualitate-txokoen gida</u> ● <u>OMS: Sexualitatearen alorreko hezkuntzari buruzko nazioarteko orientabide teknikoak. Ebidentzian oinarritutako ikuspegia</u> ● <u>De infundir miedo a difundir placeres. Claves reflexivas para la educación sexual</u> ● <u>Betaurreko moreak. Gipuzkoako haur eta nerabeentzako zerbitzuetan garatzeko hezkidetzeta-gida</u> ● <u>Sexuen galdetzailleak</u> ● <u>Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko gida</u> ● <u>Bullying-a eta LGTBI+ kolektiboaren kontrako indarkeria arautu gabeko heziketaren esparruan</u>
Webguneak	<ul style="list-style-type: none"> ● <u>Neskak eta mutilak</u> ● <u>Naizen (Baliabideak)</u> ● <u>Zure esku ere badago</u> ● <u>Pausso</u> ● <u>Berdindu! Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazioa eta arreta</u> ● <u>Zeuk esan</u>
Sare sozialetako profilak	<ul style="list-style-type: none"> ● <u>lasicowoman</u> ● <u>pitu aparicio</u> ● <u>brunomartinezsexologo</u> ● <u>hiruki larroxa</u> ● <u>_emirau</u>
Podcastak	<ul style="list-style-type: none"> ● Maldito Bollodrama https://www.youtube.com/@Malditobollodrama/videos ● Macho alfalfa https://open.spotify.com/show/2vrB6o0qGemrzo0k1DIBuW ● Bertikala https://www.youtube.com/@ bertikala /videos


Haurrentzat

Liburuak	5-7 urte
	<ul style="list-style-type: none">• Sexo es una palabra divertida (Cory Silverberg eta Fiona Smith)• Munstro Arrosa (Olga de Dios)• Por cuatro esquinas de nada (Jerome Ruillier)• Hombre de color (Jerome Ruillier)• Daniela Pirata (Susanna Isern)• Arturo eta Klementina (Adela Bosnia eta Nella Turin)• Arrosa eta leuna (Rosa Caramelo)• Bazen bitan... Bilduma (Pablo Macías Alba)• Zure gorputza zurea da (Lucía Serrano)• ¡Se llama vulva!: Mi primer libro de educación sexual (Anna Salvia eta Cristina Torrón, Menstruita mini)• ¡Se llama penel!: Mi primer libro de educación sexual (Anna Salvia eta Cristina Torrón, Menstruita mini)• Neskak eta mutilak. Norbera den bezalakoa (Aingeru Mayor eta Susana Monteagudo)• Emoziotegia (Cristina Núñez Pereira eta Rafael Romero)• Está bien ser diferente (Sharon Purtill eta Sujata Saha)• Un puñado de botones: Cuento Infantil sobre la diversidad familiar (Carmen Parets Luque)• Aitorrek bi ama ditu (Jon Zabaleta)• Color carne: Un cuento sobre el racismo y el valor de la diversidad (Cuentos que cuentan)• Gora koloretako azazkalak! (Alicia Acosta, Luis Amavisca eta Gusti)• Printzesek ere puzker egiten dute (Ilan Brenman eta Ionit Zilberman)• Derrigorrez, musurik ez (Marian Mebes eta Lidia Sandrock)• Tximeleta-belarriak (Luisa Aguilar eta Andre Neves)• Ni Nerea naiz (Nerea Garcia)• Nola dastatu ilargia? (Michael Grejniec)• Cuentos para educar sin estereotipos (María Gijón Sánchez)• Jazz naiz (Jessica Herthel)• Lolaren bizikleta (Alba Barbé)
	8-10
	<ul style="list-style-type: none">• Sexo es una palabra divertida (Cory Silverberg eta Fiona Smith)

	<ul style="list-style-type: none"> ● Tu cuerpo es tuyo (Lucía Serrano) ● Emoziotegia (Cristina Núñez Pereira eta Rafael Romero) ● Está bien ser diferente (Sharon Purtill eta Sujata Saha) ● Aitorrek bi ama ditu (Jon Zabaleta) ● Color carne: Un cuento sobre el racismo y el valor de la diversidad (Cuentos que cuentan) ● Gora koloretako azazkalak! (Alicia Acosta, Luis Amavisca eta Gusti) ● Printzesek ere puzker egiten dute (Ilan Brenman eta Ionit Zilberman) ● Ni Nerea naiz (Nerea Garcia) ● Enekoren soineko arrosa (Anne Fine) ● Jazz naiz (Jessica Herthel)
	<p style="text-align: center;">11-12</p> <ul style="list-style-type: none"> ● La regla mola (si sabes cómo funciona) (Anna Salvia eta Cristina Torrón, Menstruita) ● Tu cuerpo mola: aprende a descubrirlo (Anna Salvia eta Cristina Torrón, Menstruita) ● El semen mola: pero necesitas saber cómo funciona (Anna Salvia eta Cristina Torrón, Menstruita) ● Marizipristinek ez du zorioneko galeperrik nahi (Nunila López Salamero eta Myriam Cameros Sierra) ● Cuentos para antes de despertar (Nunila López Salamero eta Myriam Cameros Sierra) ● Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes (Francesca Cavallo eta Elena Favilli) ● Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes 2 (Francesca Cavallo eta Elena Favilli) ● Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes 3: 100 mujeres inmigrantes que han cambiado el mundo (Francesca Cavallo eta Elena Favilli) ● Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes 4: 100 jóvenes que están cambiando el mundo (Francesca Cavallo eta Elena Favilli) ● Cuentos para niños que se atreven a ser diferentes (Ben Brooks) ● Cuentos para educar sin estereotipos
Filmak eta telesailak	<p style="text-align: center;">5-7</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Luca (95 min) ● Spiderman: Un nuevo universo (117 min)

	<ul style="list-style-type: none"> ● Spiderman: Cruzando el universo (140 min) ● Trolls (92 min) ● El asombroso mundo de Gumball (11 min)
	8-10
	<ul style="list-style-type: none"> ● Luca (95 min) ● Steven Universe (11 min) ● 20.000 especies de abejas (129 min) ● Raya y el último dragón (114 min) ● Spiderman: Un nuevo universo (117 min) ● Spiderman: Cruzando el universo (140 min)
	11-12
	<ul style="list-style-type: none"> ● Luca (95 min) ● El punto muerto: Un parque paranormal (25 min) ● She-Ra y las princesas del poder (23 min) ● Red (100 min) ● Mundo extraño (90 min) ● 20.000 especies de abejas (129 min) ● Raya y el último dragón (114 min) ● Spiderman: Un nuevo universo (117 min) ● Spiderman: Cruzando el universo (140 min)
Bideoak	<ul style="list-style-type: none"> ● <u>Gona gorria bideoklipa (adin guztiak)</u>3 min ● <u>Neskak eta mutilak. Norbera, den bezalakoa (5-10 urte)</u> 3 min ● <u>In a HeartBeat (adin guztiak)</u> 4 min ● <u>Itsaslamia isatsa (5-8 urte)</u> 13 min ● <u>Caperucita dice no (5-10 urte)</u> 4 min ● <u>Tximeleta belarriak (5-8 urte)</u>3 min ● <u>Koloretako munstroa (5-8 urte)</u> 3 min
Jokoak	<ul style="list-style-type: none"> ● Mihi-bero (11-12 urte) ● <u>Jaibu (10-12 urte)</u> ● <u>Neskak eta mutilak txartel-jokoa (5-10 urte)</u> ● Familia mila kolore karta-jokoa (5-8 urte) ● Dixit (adin guztiak) ● Feelinks (adin guztiak)

	<ul style="list-style-type: none"> ● Story Cubes (adin guztiak) ● Ni pertsona – Wonder Ponder (adin guztiak) ● Pellízcame (adin guztiak) ● Mundu Krudela – Wonder Ponder (adin guztiak) ● Koloretako munstroa (adin guztiak) ● ¡Princesas al rescate! (6 urtetik aurrera) ● El misterio de las mujeres invisibles (6 urtetik aurrera) ● Las niñas de Jacaranda (4-8 urte) ● Las brujas de Farrabús (6-12 urte)
Páginas web	<ul style="list-style-type: none"> ● Pausso ● Zeuk esan



5.

DINAMIKAK

Jarraian, gidaren eduki batzuk lantzeko hainbat dinamika proposatzen dira. Proposamen horiek malguak dira eta talde bakoitzaren beharretara egokitu daitezke, dinamikak aldatuz.

Garapen ebolutiboa

Ni naiz... Gainerakoak dira...

Ni naiz... Gainerakoak dira...
Adina:
5 urte arteko haurrak
Aurreikusitako denbora:
20-30 minutu
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Giza gorputzeko atalen irudiak, puzzle gisa. Guztira, hiru gorputz osatu ahal izan behar dira.- Irudien artean ezinbestekoa da honako hauek aurkitzea:<ul style="list-style-type: none">- Gorputz arrazializatuak.- Morfologia eta gaitasun desberdinetako gorputzak.- Gorputzeko atalak, era askotakoak: ez bakarrik normatiboak, argalak edota gihartsuak.- Askotariko genitalak: mota bat baino gehiagoko bulba, zakil eta genital intersexualak.- Bulba bat.- Zakil bat.- Genital anbiguo batzuk.- Gometxak.
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Gorputzen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak ezagutzea.- Haurren gorputzaren garapenaren berezko aldaketak identifikatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Parte-hartzaileei giza gorputzeko atalen irudiak emango zaizkie puzzle gisa.- Puzzleak egin ondoren, haurrek gometxak jarri beharko dituzte irudietan, hainbat zatitan (adibidez, zakila, bagina, bularrak, etab.).- - Se finalizará, con una reflexión sobre las diferencias entre los cuerpos. Es importante que al mismo tiempo que vean las diferencias físicas que existen entre los cuerpos, entiendan que esos son los escasos aspectos que nos diferencian- Amaitzeko, gorputzen arteko desberdintasunei buruz hausnartuko da. Garrantzitsua da, gorputzen arteko desberdintasun fisikoak ikustearekin batera, desberdintzen gaituzten

alderdi urriak horiek direla ulertzea.

Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Gomendagarria da hezitzaileak arretaz entzun eta behatzea, epaitu gabe.
- Erraza izan arren, puzzlea egiterakoan tratatzen badira, lagundu egin dakieke edo beraiek elkarri laguntzea sustatu⁰.

Ebaluazio-adierazleak:

- Puzzlea egiteko eta gometxak jartzeko moduaren arabera, eskuratutako ezagutza-maila balioztatuko da.

Materialen estekak:

Genitalen irudiak:

<https://www.vice.com/es/article/a34yb5/creators-galeria-de-vulvas-retratos-diversos-de-este-tesoro>

https://society6.com/product/nice-penis-body-positive-dick-abstract-art5316036_print

<https://www.etsy.com/es/listing/889381826/arte-de-pared-del-pene-impresion-de-arte>

<https://www.instagram.com/p/CVfyWOIjAaK/>

https://www.instagram.com/p/CGzH-2_jDF8/

<https://prevencionabuso.com/educacion-sexual-infantil/material-de-apoyo/ilustraciones-con-genitales/>

Bularren eta soinen irudiak:

<https://www.etsy.com/es/listing/892385625/impresion-de-tetas-del-mundo-dibujo-de>

<https://www.seventeen.com/health/sex-health/g23725507/different-boob-types-shapes/>

<https://www.etsy.com/listing/1015310072/body-positivity-digital-download-a4>

<https://www.etsy.com/es/listing/1029280659/body-positivity-descarga-digital->

a4?click_key=fe14b524f93ae2f6ef4324b659abdf912314d0b6%3A1029280659&click_sum=54c62694&external=1&rec_type=ss&ref=landingpage_similar_listing_top-1

<https://www.pinterest.es/pin/tutoriais-guias-corpos-gordos-ltima-atualizao-02062019--398287160782011816/>

Besoen irudiak:

<https://in.pinterest.com/pin/133278470212629332/>

<https://in.pinterest.com/pin/113223378124707932/>

Hanken irudiak:

<https://www.pinterest.es/pin/1618549861443164/>

<https://drawingref.com/male-leg/>

<https://in.pinterest.com/pin/588071663869603718/>

Gorputzen irudak:

<https://in.pinterest.com/pin/human-anatomy-faces--325877723015018521/>

<https://in.pinterest.com/pin/muscular--20969954507775353/>

<https://www.pinterest.es/pin/37436240646362428/>

Giza gorputza ezagutzen

Giza gorputza ezagutzen	
Adina:	
	6-7 urte
Aurreikusitako denbora:	
	45 minutu
Materialak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Paper-biribilkia.- Koloretako errotuladoreak.- Gorputzeko organoen argazkiak edo irudiak, Googlen edo antzeko orrietan eskuragarri dauden irudietatik hartuak.
Helburuak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Gorputzean fisikoki gertatzen diren aldaketak ezagutzea.- 25 organo nagusien kokapena eta giza gorputzaren barruan duten funtzioa ezagutzea.
Garapena:	
	<ul style="list-style-type: none">- Egingo denaren azalpen laburra.- Tamaina errealeko horma-irudia bat egingo da. Horretarako, hezitzailea edo haurretako bat paperean etzango da, eta gainerakoek errotuladorearekin markatu beharko dute bere silueta.- Horma-irudiaren ondoan, dinamizatzen duenak irudiak edo argazkiak utziko ditu giza gorputzeko organoekin, eta hurrek markaturiko siluetan eta dagokien lekuan jarri beharko dituzte.- Jarritako organo bakoitzeko, dinamizatzaileak azalpen labur eta simple bat emango du organo horri buruz eta gure gorputzean duen funtzioari buruz.- Behin organoak jarrita, irudia aprobetxatuko da maila fisikoan gertatzen diren aldaketak azaltzeko (tamaina errealeko hainbat irudi egin daitezke, gorputzen arteko desberdintasun fisikoak modu bisualagoan azaltzeko).
Hezitzaileentzako jarraibideak:	

- Ugalketa-aparatuaz hitz egitean sortzen diren sentimenduak normalizatu.
- Egindako jardueraren deboluzioa egin

Ebaluazio-adierazleak:

- Gorputzeko organoak azaltzeko eta kokatzeko gai dira.
- Gorputz desberdinen arteko aldaketa fisikoak bereizten dituzte.

Materialen estekak:

Garuna: <https://es.vecteezy.com/vectores-gratis/cerebro-humano>
 Bihotza: <https://www.pngwing.com/es/search?q=coraz%C3%B3n+humano>
 Biririkak: <https://www.gettyimages.es/fotos/human-lung>
 Sabela: <https://www.gettyimages.es/ilustraciones/est%C3%B3mago>
 Gibela: <https://es.vecteezy.com/vectores-gratis/h%C3%ADgado>
 Pankrea: <https://es.vecteezy.com/vectores-gratis/pancreas>
 Hesteak (lodia eta meharra) <https://www.freepik.es/fotos-vectores-gratis/intestino>
 Giltzurrunak: <https://www.freepik.es/search?format=search&query=ri%C3%B1ones>
 Timoa: <https://www.istockphoto.com/es/ilustraciones/timo>
 Barea:
<https://www.istockphoto.com/es/search/2/image?excludenudity=false&mediatype=illustration&phrase=bazo>
 Maskuria: https://www.freepik.es/psd-gratis/representacion-3d-ic%C3%B3n-cuerpo-humano_40126376.htm#query=vejiga&position=1&from_view=search&track=sph
<https://www.istockphoto.com/es/search/2/image?mediatype=illustration&phrase=vejiga>
 Prostata: <https://laeducacionsexual.wordpress.com/la-prostata-femenina/>
<https://www.cigna.com/es-us/knowledge-center/hw/anatoma-de-la-prstata-tp10105>
 Begiak: <https://www.quirell.es/anatomia-del-ojo-humano/>
 Belarria: <https://www.pinterest.es/pin/20688479528424028/>
 Sudurra: <https://paradigmia.com/curso/anatomia-humana/modulos/generalidades-y-esplacnologia-de-cabeza-y-cuello/temas/partes-de-la-nariz/>
 Mihia: <https://www.vice.com/es/article/pa787b/la-diversidad-de-la-lengua>
<https://montero-ls.com/el-mapa-de-la-lengua/>
 Zakila eta barrabilak: <https://www.bostonmedicalgroup.es/destacados/todo-lo-que-debes-saber-sobre-el-pene>
 Barrabilak: <https://www.bienestarcolsanitas.com/articulo/todo-sobre-testiculos.html>
 Klitoria: <https://www.lavozdegalicia.es/noticia/lavozdelasalud/vida-saludable/2023/02/25/donde-clitoris-habido-estudios-genitales-femeninos-terminos-placer-sexual/00031677323594420858593.htm>
<https://www.bienestarcolsanitas.com/articulo/clitoris-anatomia-organo-poco-estudiado.html>
 Obulutegiak eta umetokia:

[https://www.clinicamedrano.com/5-cosas-que-deberias-saber-sobre-los-ovarios-poliquisticos/#iLightbox\[gallery310\]/0](https://www.clinicamedrano.com/5-cosas-que-deberias-saber-sobre-los-ovarios-poliquisticos/#iLightbox[gallery310]/0)

<https://www.reproduccionasistida.org/menstruacion/estado-del-endometrio-durante-el-ciclo-menstrual/>

Larruazala: <https://www.stanfordchildrens.org/content-public/topic/images/66/126266.gif>

Hezurak: https://medlineplus.gov/spanish/ency/esp_imagepages/9065.htm

Giharrak:

[https://es.wikipedia.org/wiki/M%C3%BAsculo#/media/Archivo:1007_Muscle_Fibes_\(large\)_esp.jpg](https://es.wikipedia.org/wiki/M%C3%BAsculo#/media/Archivo:1007_Muscle_Fibes_(large)_esp.jpg)

Hortzak: <https://www.clinicafriedlander.com/nombre-de-los-dientes/>

Hilekoa aparta da...

Hilekoa aparta da...
Adina:
10-12 urte
Aurreikusitako denbora:
Dinamika honetan emandako denbora aldatu egin daiteke parte-hartzaileen kopuruaren, adinaren eta taldearen heldutasunaren arabera. Hezitzaileen esku geratzen da zehaztea zenbat denbora erabiliko den materiala elkarrekin irakurtzeko eta harekin lan egiteko
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- «La regla mola» liburua, Menstruita bilduma.
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- «La regla mola» liburuaren irakurketa bateratua egitea.- Bulbadun gorputzen aldaketak aztertzea.- Hilekoa eta inguratzen duen gutzia modu positiboan eta taburik gabe komentatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Liburuaren irakurketa bateratua egitea proposatzen da. Bere hedadura dela-eta, gomendagarria izan daiteke irakurketa hainbat saiotan egitea.- Kapitulu bakoitzaren amaieran, gaiari buruz hitz egingo da, eta ezagutzak sendotzeko ariketak egingo dira. <u>Adibidez: hilekoaren produktuei buruzko kapitulua amaitzean, collage bat egin daiteke produktu bakoitzaren alde on eta txarrekin.</u>- Era berean, liburuak proposatzen dituen ariketak egin daitezke (testuinguruak horretarako aukera ematen badu).
Hezitzaile jarraibideak:
<ul style="list-style-type: none">- Dinamika hori talde mistoetan zein talde ez-mistoetan egin daiteke.
Ebaluazio-adierazleak:
<ul style="list-style-type: none">- Hilekoaren prozesua azaltzeko gai dira.- Haurrek ulertzen dute zer den hilekoa, zertarako balio duen eta nola funtzionatzen duen.- Hilekoarentzako produktu nagusiak ezagutzen dituzte.

Semena aparta da...

Semena aparta da...
Adina:
10-12 urte
Aurreikusitako denbora:
Dinamika honetan emandako denbora aldatu egin daiteke parte-hartzaileen kopuruaren, adinaren eta taldearen heldutasunaren arabera. Hezitzaileen esku geratzen da zehaztea zenbat denbora erabiliko den materiala elkarrekin irakurtzeko eta harekin lan egiteko
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- «El semen mola» liburua, Menstruita bilduma.
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- «El semen mola» liburuaren irakurketa bateratua egitea.- Zakildun gorputzen aldaketak aztertzea.- Eiakulazioa eta inguratzen duen guztia modu positiboan eta taburik gabe komentatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Liburuaren irakurketa bateratua egitea proposatzen da. Bere hedadura dela-eta, gomendagarria izan daiteke irakurketa hainbat saiotan egitea.- Kapitulu bakoitzaren amaieran, gaiari buruz hitz egin, eta ezagutzak sendotzeko ariketak egingo dira.- Liburuak proposatzen dituen ariketak ere egin daitezke (testuinguruak horretarako aukera ematen badu).
Hezitzaileentzako jarraibideak:
<ul style="list-style-type: none">- Dinamika hori talde mistoetan zein talde ez-mistoetan egin daiteke.
Ebaluazio-adierazleak:
<ul style="list-style-type: none">- Semena zer den eta zertarako balio duen azaltzeko gai dira.- Haurrek ulertzen dute zer den eiakulazioa, zertarako balio duen eta nola funtzionatzen duen.

Nire gorputza aparta da...

Nire gorputza aparta da...	
Adina:	
	10-12 urte
Aurreikusitako denbora:	
	Dinamika honetan emandako denbora aldatu egin daiteke parte-hartzaileen kopuruaren, adinaren eta taldearen heldutasunaren arabera. Hezitzaileen esku geratzen da zehaztea zenbat denbora erabiliko den materiala elkarrekin irakurtzeko eta harekin lan egiteko
Materialak:	
	<ul style="list-style-type: none">- «Tu cuerpo mola» liburua, Menstruita bilduma.
Helburuak:	
	<ul style="list-style-type: none">- «Tu cuerpo mola» liburuaren irakurketa bateratua egitea.- Gorputzen ezaugarriak identifikatzea eta izendatzea.- Gorputzen edo gorputzaren atalen funtzionamenduari buruzko zalantzak argitzea.
Garapena:	
	<ul style="list-style-type: none">- Liburuaren irakurketa bateratua egitea proposatzen da. Bere hedadura dela-eta, gomendagarria izan daiteke irakurketa hainbat saiotan egitea.- Kapitulu bakoitzaren amaieran, gaiari buruz hitz egin, eta ezagutzak sendotzeko ariketak egingo dira.- Liburuak proposatzen dituen ariketak ere egin daitezke (testuinguruak horretarako aukera ematen badu).
Hezitzaileentzako jarraibideak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Irakurketa talde mistoekin egitea gomendatzen da, aberasgarriagoa izan dadin.
Ebaluazio-adierazleak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Haurrak gai dira beren gorputzen eta beste gorputz batzuen atalak izendatzeko.- Haurrek ulertzen dituzte datozen urteetan izango dituzten aldaketak.

Antzerkia: Obulua eta espermatozoidea

Antzerkia: Obulua eta espermatozoidea	
Adina:	
	5-7 urte
Aurreikusitako denbora:	
	<ul style="list-style-type: none">- Lehenengo zatia: ordubete.- Bigarren zatia: 20 minutu. Denbora aldatu ahal izango da, eta taldearen eta motibazioaren arabera egokitu beharko da.
Materialak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Zurezko ziztailuak.- Belkroa.- Pinturak.- Kola.- Guraizeak.- Koloretako kartoi meheak.- Obuluaren eta espermatozoideen zatiak irudikatzen dituzten txantiloak. Argazkiak edo irudiak bilatzea gomendatzen da, eredu gisa erabiltzeko, eta tailerrean laguntzeko.
Helburuak:	
	Giza ugalketaren prozesua ezagutzea.
Garapena:	
	<ul style="list-style-type: none">- Mahai baten inguruan, materialak eskura ditugula eta txantiloak erabiliz, egingo dena azalduko da labur: obulu bat eta espermatozoide bat egingo ditugu eta horiek osatzen dituzten zatiak ezagutuko ditugu.- Ez dugu zehatz-mehatz azalduko zer diren, baina gero haiekin antzerki bat egingo dugula jakinaraziko dugu.- Materiala banatu eta obuluaren eta espermatozoidearen zatiak egingo ditugu.- Osatu ondoren, dinamikaren bigarren zatiari ekingo diogu, eta, antzerki baten bidez, zehazki azalduko diegu zer diren eta zer funtzio dituzten. Neska-mutilek dituzten zalantza guztiak azaltzeko edo argitzeko unea izango da.- Azaldutakoa ondo ulertu dutela egiaztatzeko, parte-hartzaileek antzerki bera antzeztuko dute, obuluaren zein espermatozoidearen zatiak eta ernalketa nola gertatzen den azalduz.

Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Garrantzitsua da dinamika zuzentzen duen pertsonak hasi aurretik teoria oso argi izatea, oso litekeena baita landutako gaiak zalantza asko sortzea.
- Haurrei obuluaren eta espermatozoidearen zatiak sortzen lagundu.
- Garrantzitsua da antzerkiaren aurretik zalantza guztiak argitzea, hurrek ernalketa-prozesua behar bezala azal dezaten.
- Tailerra banaka egiteko aukera kontuan hartu, tailerra ahalik eta dinamikoena izan dadin saiatuz, eta adingabearen beharretara eta prestasunera egokituz.

Ebaluazio-adierazleak:

- Dinamikaren helburua lortuzat joko da, baldin eta bertan parte hartzen duen pertsonak antzerkia behar bezala antzezten badaki, aurretik ikusi ondoren.

Materialen estekak:

Obuluaren eta espermatozoidearen irudia:

<https://www.reproduccionasistida.org/gameto/>

Generoen arteko berdintasuna

Handitan izan naiteke...

Handitan izan naiteke...
Adina:
5-7 urte
Aurreikusitako denbora:
Ordubete
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Folioak- Marrazteko eta margotzeko materiala- Lan maskulinizatuak egiten ari diren emakumeen argazkiak.- Lan feminizatuak egiten ari diren gizonen argazkiak.- Bideoa: Inspirando un futuro sin estereotipos.
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Haurren garapenean eragina duten genero-estereotipoak deuseztatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Haurrei folioak emango zaizkie, bertan marraztu dezaten.- Marrazteko eskatuko zaie:<ul style="list-style-type: none">- Suhiltzaile bat.- Pilotu bat.- Erizain bat.- Haur bat zaintzen duen pertsona bat.- Marrazkiak egin ondoren, aurreko atalean aipatutako argazkiak eta bideoa erakutsiko dira, eta azalduko da denok egin ditzakegula nahi ditugun lan guztiak.
Hezitzaileentzako jarraibideak:
<ul style="list-style-type: none">- Garrantzitsua da hizkuntza neutroa edo genero-markarik gabekoa erabiltzen saiatzea jarduera aurkezterakoan.
Materialen estekak

Emakumeak lan maskulinizatuak egiten:

https://www.elnacional.cat/es/sociedad/mujeres-bomberos-cataluna_476715_102.html

<https://www.gettyimages.es/fotos/mujer-mecanica>

<https://parkingaeropuertosevilla.net/2017/07/24/pocas-mujeres-piloto-de-avion/>

https://www.abc.es/cultura/musica/abci-mujer-directora-filarmonica-qatar-201210180000_noticia.html

Gizonak lan feminizatuak egiten:

<https://www.elcomercio.es/oviedo/201702/01/modisto-puntadas-20170201000530-v.html>

<https://www.burbuja.info/inmobiliaria/threads/mbaye-gil-el-enfermero-que-llego-a-espana-en-patera-impacta-ver-a-un-negro-en-un-hospital.1732306/#>

<https://www.crushpixel.com/es/stock-photo/handsome-man-cleaning-office-with-406608.html>

Errespetatzen dugu

Errespetatzen dugu
Adina:
5-7 urte
Aurreikusitako denbora:
Ordu eta erdi, gutxi gorabehera. Denbora aldatu ahal izango da, eta taldearen eta motibazioaren arabera egokitu.
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Botoiak, haria eta oihal bat- Lisaburdina- Flexoa eta bonbilla- Panpina eta arropa- Lanbasa- Baloia- Takoiak- Diana eta dardoak- Soka, matxardak eta arropa- Eraikuntzak- Egur zati bat, iltzeak eta mailu bat- Ipuina: «Nire aita etxeoandrea da, eta zer?», Silvia Ugidos (Oharra: material hau ez dago eskuragarri Interneten)
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Etxeko jarduera bakoitzari lotutako estereotipoak identifikatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Materialak gelako leku desberdinetan jartzen dira.- Parte-hartzaile bakoitzari espazioetako batean kokatzeko eskatzen zaio.- Egoera bat antzezten dute egokitu zaien materialarekin.- 10 minuturen ostean, hurrengo espaziora pasatzeko eskatzen zaie, elementu berriarekin nahi duten antzerkia egiteko.- Espazio guztietatik igaro direnean, zirkulu bat egin eta galdera batzuk egiten zaizkie, gogoeta gisa:<ul style="list-style-type: none">- Zer gustatu zaizue gehien?

- Denok berdín egin duzuela uste duzue?
- Bateratze-lanaren ondoren, aukerako zeregin gisa, «Nire aita etxeandrea da, eta zer?» ipuina irakurri, eta irakurritakoari buruzko gogoeta egiten da.

Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Ipuina alde zurratik irakurri, edozein galdera edo egoerari aurrea hartzeko.
- Ustekabeko edozein gertaera aurreikusi eta edozein arrisku-egoera prebenitu, adibidez mailuarekin, eta beharrezko neurriak hartu.
- Eztabaida sustatu jarduerekin nola sentitu diren jakiteko, eta jardueran erabiltzen duten hitzik gabeko adierazpena eta hiztegia behatu.
- Egindako jardueraren deboluzioa egin.

Ebaluazio-adierazleak:

- Ez dago materialekiko inolako arbuio-jarrerarik.
- Banakako antzerkia egitean hitzik gabeko hizkuntzan arreta jartzea.

Txanogorri-to eta Txanogorri-no

Txanogorri-to, Txanogorri-no eta Txanogorritxo
Adina:
8-10 urte
Aurreikusitako denbora:
2 ordu. Denbora aldatu ahal izango da, eta taldearen eta motibazioaren arabera egokitu beharko da.
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Arbela eta errotuladoreak/klarionak.- Arkatzak- 1. ipuina: «Txanogorritxo» (Charles Perrault)- 2. ipuina: «El Lobito Caperucito» (Marisa Rebolledo eta Susana Ginesta)
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Haurrentzako ipuinetan dauden genero-estereotipoak identifikatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Bi ipuinak irakurtzen dira (hezitzaile batek irakurriko ditu), eta bi kontakizunak ondo ulertzen dituztela ziurtatzen dugu. Egoki iritziz gero, nesketako batek egin dezake irakurketa.- Taldea bitan banatuko da. Lehenengo taldeak ipuinetako baten antzerkitxoak egingo du, bigarrenak, beste ipuinarena.- Elkarrizketa bat hasiko da, haur bakoitzak adieraziko du nola sentitu den bi “otsoak” antzeztean.- Bi ipuinen arteko desberdintasunak identifikatu behar dituzte, eta hurrek azaltzen dutenaren zerrenda egingo da.- Amaitzeko, taldeko hausnarketa egingo da.
Hezitzaileentzako jarraibideak:
<ul style="list-style-type: none">- Hezitzailea moderatzailea izango da une oro, baina gehiegi sartu gabe.- Hurrek erabiltzen duten hiztegia behatuko du eta, iruzkin desegokiak egiten badira, zuzendu egingo ditu.
Ebaluazio-adierazleak:

- Parte-hartzaileek bi kontakizunen arteko desberdintasunak identifikatu ahal izan dituzte.
- Rol alderantzikatuak dituen kontakizuna onartu dute.

Harreman osasungarrien dekalogoia

Harreman osasungarrien dekalogoia
Adina:
10-12 urte
Aurreikusitako denbora:
45 minutu.
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Kartoi meheak- Koloretako errotuladoreak- Maitasun erromantikoari buruzko bideoak. Eranskinetan batzuk gomendatzen dira, baina hezitzaileen esku geratzen da lan egiten duten haurren gustuetara gehien egokitzen direnak bilatzea edo aukeratzea.
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Mugak jartzen ezetz esaten ikastea- Aukeratzeko askatasuna lantzea
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Lehenik eta behin, tailerrari buruzko sarrera bat egiten da. Neska-mutilei galdetuko zaie zer espero duten bikote-harremanetatik, nola ikasi duten zer den bikote izatea eta nolakoa izango litzatekeen haien bikotekide ideala.- Bideoak ikusiko dira. Bakoitzaren ondoren, hezitzaileek lagundu egin behar diete neska-mutilei harreman batean onargarriak ez diren portaerak identifikatzen.- Ondoren, parte-hartzaileek harreman osasungarrien dekalogoia egingo dute. Taldeak bertan jaso nahi dituen gaiak erabakitzen dituenean, kartoi mehe batean idatzi eta ikusteko moduko leku batean jarriko da. Hasieran, talde txikika egin daitezke proposamenak eta, ondoren, ekarpen horiek talde osoak landu eta bereak egin ditzake.
Hezitzaileentzako jarraibideak:
<ul style="list-style-type: none">- Tailer hau egingo duten adingabeen adina eta heldutasuna balioztatzea gomendatzen da, haien beharretara egokituz.
Ebaluazio-adierazleak:

- Parte-hartzaileek dekalogoari buruz egiten duten hausnarketa balioztatuko da.
- Beren dekalogoari egiten dizkioten ekarpenak eta beren inplikazio maila balioztatuko dira.

Eranskina

- Gomendatutako bideoak:
 - «Te insulta porque le gustas» (filmaren sarrera “¿Qué les pasa a los hombres?”).
 - «Amor del bueno», Psicowoman.
 - «La telaraña de la violencia», Pamela Palenciano.
 - «Ahora o nunca», Beldur Barik Lehiaketa.
 - «Caperucita dice NO».
 - «Doble check», Paco Caballero.

- **Harreman osasungarrien dekalogoaren adibidea:**
 1. Mutil edo neska bat gustatzen zaizunean hurbildu zaitez modu onean, inoiz ez ikaratzuz. Ezetz esaten badizute, ez tematu.
 2. Mutil edo neska bat gustuko duzunean, hark gogoko ez bazaitu, ez hartu gauza pertsonaltzat. Lagunak izan zaitezke.
 3. Neska edo mutil baten «neska-laguna edo mutil-laguna» izatea onartu izanak ez du esan nahi ezin duzunik atzera egin. Edozein unetan esan dezakezu «ez». Hobe duzu enpatiaz ezetz esatea, baina momentuan sentitzen ez baduzu, ideia ona izango litzateke aurrerago hitz egitea.
 4. Mutil baten eta neska baten artean adiskidetasuna bakarrik ere egon daiteke.
 5. Ez da pertsona perfektua bilatu behar, inor ez da perfektua.
 6. Ez sentitu zure telefonoa, Instagram edo TikTok emateko presiorik desatsegina ez izateko. Zure bizitzan nor sartuko den aukeratzeko eskubidea duzu, baita bizitza birtualean ere.
 7. Enpatia da gakoa. Egokiena litzateke mundu guztiak jarrera positiboa eta irribarrea izatea, baina ulertu behar duzu norbaitek zurekin egoteko gogorik ez badu eta zure adiskidetasuna bakarrik nahi badu.
 8. Pertsona bat gustuko duzunean, ez erreparatu fisikoari bakarrik.
 9. Ez ziurtzat jo heterosexualitatea.
 10. Saiatu harremanean zu zeu izaten.

Autoestimua

Zirkulu alaia

Zirkulu alaia
Adina:
5-6 urte.
Aurreikusitako denbora:
Ordubete, gutxi gorabehera
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Emozioak iradokitzen dituzten irudiak, Google bidez eskura daitezkeenak (adibidez: lore bat, egun eguzkitsu bat, pertsona bat barrez, pertsona bat kirola egiten segurtasun-jarrerarekin...).
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- gauza positiboak esateak eta entzuteak dakartzan onurak ezagutzea.- Autoestimua sustatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Tras acabar el juego quien dinamice preguntará al grupo una serie de cuestiones de forma oral:- Lehenik eta behin, zer egingo dugun azalduko dugu labur.- Haurrei biribilean esertzeko eskatuko diegu, laminak edo marrazkiak erdian jartzeko nahikoa tarte utziz.- Parte-hartzaile bakoitzak bere eskuineko kidearekin modu positiboan lotzen duen edo hura gogorarazten dion irudi bat aukeratuko du.- Guztiek karta bana dutenean, ozen esango dute hori zergatik aukeratu duten eta bere kideaz zer ideia edo pentsamendu positibo duten.- Jolasa nahi beste aldiz errepikatu ahal izango da, haurrek karta aldatu ahal izan dezaten.- Era berean, haurrak biribilean beste leku batean eser daitezke edo errondaren noranzkoa aldatu.- Jokoa amaitu ondoren, dinamizatzailak galdera batzuk egingo dizkio taldeari:<ul style="list-style-type: none">- Gustatu al zaizue ikaskideen aldetik gauza politak entzutea?- Nola sentitu zarete?- Uste duzue ona dela besteei gauza politak esatea? Zergatik?

Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Eztabaida sustatu.
- Amaitzean, egindako jardueraren deboluzioa egin.

Ebaluazio-adierazleak:

- Mezu positiboak jasotzea gustuko dutela adierazi dute.
- Beste pertsona batzuen ezaugarri positiboak aitortzeko erraztasuna erakutsi dute.

Kultura-aniztasuna

Kultura-aniztasuna
Adina:
7-9
Aurreikusitako denbora:
Hilean ordubeteko jarduera.
Materialak:
Aukeratzen duten tailerraren arabera, materiala aldatu egingo da: <ul style="list-style-type: none">- Liburuak- Filmak- Jakiak- Irudiak- Jantzi tipikoak- ...
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Kultura-nortasuna indartzea- Autoestimua indartzea
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Hasieran taldea bilduko dugu egingo duguna azaltzeko.- Pertsona bakoitzak landuko dituen herrialdea eta alderdi kulturala (musika, gastronomia, etab.) aukeratuko ditu.- Haur bakoitzak aurkezpena egiteko beharko duen materialaren zerrenda egingo du.- Guztien artean zehaztuko dira erakusketen egunak.- Aurkezpenaren aurreko asteetan, haur bakoitzak ordu erdi emango du hura prestatzen.- Adostutako egunean, taldea bilduko da, eta dagokionak bere aurkezpena egingo du.- Aurkezpenaren ondoren, emandako informazioari buruzko talde-hausnarketa egingo da, honako galdera hauen bidez:<ul style="list-style-type: none">- Zer iruditu zaizue aurkezpena?- Zer gustatu zaizue gehien?- Zer desberdintasun aurkitzen dituzue zuen kulturari dagokionez?- Tarte bat utziko da guztiek ikusitakoari buruzko iradokizunak egin ditzaten.

Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Binaka egin daiteke eta, hala, handienek txikienei lagundu diezaiekete.
- Edozein formatu, aurkezpen, kartel eta abar erabil daiteke.
- Hezitzaileak aurkezpen-materiala prestatzen lagunduko die, beharrezkoa izanez gero.
- Hezitzailea arduratuko da aurkezpenean denak isilik egoteaz.
- Hezitzaileak ikusten badu aurkezten ari den pertsona ez dela esperientziaz gozatzen ari edo blokeatzen ari dela, aurkezpena amaitzen lagunduko dio edo berekin egingo du.

Ebaluazio-adierazleak:

- Haurrak azaldutako kulturarekiko duen identifikazio- eta ezagutza-maila behatu.
- Hitzeko komunikazioari eta hitzik gabeko komunikazioari erreparatu, egiten ari den jarduerari buruzko gogobetetzea identifikatzeko.
- Materiala egiteko inplikazio-maila behatu, motibazioa balioztatzeko.

Paseoa basoan barrena

Paseoa basoan barrena	
Adina:	
	10-12 urte
Aurreikusitako denbora:	
	Ordu eta erdi. Denbora aldatu ahal izango da, eta taldearen eta motibazioaren arabera egokitu.
Materialak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Papera- Kartoi meheak- Errotuladoreak- Musika lasaigarria jar dakieke- Eranskina: Ezaugarri positiboen koadroa (horiek identifikatzea kostatzen bazaie)
Helburuak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Haurren autoestimua bultzatzea, bakoitzaren eta besteen ezaugarri positiboak ezagutzeko.
Garapena:	
	<ul style="list-style-type: none">- Hezitzaileak autoestimuari buruzko sarrera labur bat egingo du, ideia- eta galdera-zaparradaren bidez.- Ondoren, hurrei zuhaitz bat marrazteko esango die. Zuhaitzak sustraiak, adarrak, hostoak, fruituak eta abar izan behar ditu marraztuta. Sustraietan, beren ustez dituzten ezaugarri positiboak idatzi behar dituzte; adarretan, egiten dituzten ekintza positiboak; eta, azkenik, fruituetan edo loreetan, beren lorpenak.- Egoki iritziz gero, musika jar daiteke jarduera egiten duten bitartean.- Haur bakoitzak bere marrazkia sinatu behar du (izena eta abizena idatzi).- Marrazkia amaitu ondoren, haur bakoitzak bere zuhaitza aurkeztu beharko du.- Parte hartzaile bakoitzak bere marrazkia erakutsi eta aurkeztuko die gainerakoei.- Aurkezpen guztiak egin ondoren, zuhaitzak leku irisgarri batean jarriko dira, gainerako ezaugarri positiboen marrazkiekin batera.
Hezitzaileentzako jarraibideak:	
	<ul style="list-style-type: none">- Hezitzaileak, tailerra amaitzean, hainbat galdera egin ditzake parte-hartzaileen interes maila ezagutzeko eta tailer zehatz hori egiten nola sentitu diren ikusteko.- Taldean bere buruari buruzko alderdi positiboak identifikatzeko zailtasuna duen haurrik

badago, hezitzailea izango da haren alderdi positiboak ozenki aipatuko dituen eta zuhaitzean islatzen lagunduko diona. Era berean, zuhaitzak ikusteko jarrita dauden bitartean, hezitzaileak erne egongo dira hutsuneak dituzten zuhaitzetan alderdi positiboak gehitzeko..

Eranskina

- Ezaugarri positiboen taula:
Halako pertsona naiz:

Irekia	Zentzuduna	Kementsua	Alaia
Aktiboa	Positiboa	Ordenatua	Dinamikoa
Elkarrizketarako irekia	Pazientea	Baikorra	Sortzailea
Moldagarria	Benetakoa	Koherentea	Buru arina
Dibertigarria	Adeitsua	Gogotsua	Irudimentsua
Adoretsua	Asertiboa	Zintzoa	Atsegina

Desiraren orientazioa

Zenbat familia!


Zenbat familia!
Adina:
5-7 urte
Aurreikusitako denbora:
45 minutu
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Buru-hausgarriaren jokoak:<ul style="list-style-type: none">- Kartoi meheak- Forrua- Kola- I. eranskina: Familien irudiak. Familien kuboak. Familia moten irudiak edota ilustrazioak bilatzea gomendatzen da.- Folioak- Koloretako arkatzak
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Sexu-orientazio desberdinekiko errespetua lantzea.- Familia-mota desberdinak ezagutzea.- Familia-mota guztiekiko errespetuzko jarrerak sustatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Hurrek familia-mota desberdinak ezagutu ditzaten, horien irudiekin (emakumea-gizona, emakumea-emakumea, gizona-gizona, guraso bakarrekoa, aitona-amonak, etab.) puzzle bat sortuko da eta hura armatu beharko dute (I. eranskina).- Familia bakoitzaren irudia osatu ahala, hezitzaileak zer iradokitzen dien galdetuko die eta solasaldi txiki bat hasiko du.- Ondoren, koloretako arkatzak eta folio bat emango zaizkie, bakoitzak familia bat marrazteko (ez du zertan berea izan), eta, nahi izanez gero, gainerako parte-hartzaileei beren marrazkia kontatzeko aukera izango dute.
Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Garrantzitsua da dinamikaren denbora ordubetetik gorakoa ez izatea, hain txikiak izanik jarduerarekin nekatu egin daitezkeelako eta lortu beharreko helburua galduko litzatekeelako. Kasu horretan, marrazkia beste egun baterako utz liteke.
- Jarduerak (buru-hausgarria eta marrazkia) taldean egitea planteatzen da, baina puzzlea banaka edo bikoteka egin daiteke, haurren garapen-mailagatik edo taldearen ezaugarriengatik egokiagoa bada.
- Hezitzaileak buru-hausgarria armatzen lagundu ahal izango die.
- Iruzkin homofoboak eta jarrera sexistak saihestu.
- Hezitzaileak tailerra aldeztu aurretik prestatu eta haurrek nola erantzun duten aurrekusi beharko du.

Ebaluazio-adierazleak:

- Hasieran, familia-moten (emakumea-gizona, emakumea-emakumea, gizona-gizona, guraso bakarrekoa, aitona-amonak, etab.) marrazki desberdinak dituzten binetak erakutsiko zaizkie. Horien artean berdinaren talde bat agertuko da. Haurrek bi taldetan sailkatu beharko dituzte (familiak eta ez familiak). Horrela, hezitzaileak taldearen ezagutza-maila jakingo du. Ondoren, prozeduran adierazitako jarduerak egingo dituzte.
- Eskuratutako ezagutzak egiaztatzeko, jarduerak amaitutakoan, hasieran erabili ditugun binetak erakutsiko zaizkie berriro. Jarduera modu desegokian egiten duen haurrik badago, harekin bigarren zati bat egingo da, familia-mota desberdinak uler ditzan.

Eranskina



Familiak osatzen

Familiak osatzen
Adina:
8-9 urte
Aurreikusitako denbora:
Ordubeteko bi saio. Denbora aldatu ahal izango da, eta taldearen eta motibazioaren arabera egokitu.
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Playmobil panpinak- Zapata-kaxa dekoratu bat- Arbela eta klarionak edo errotuladoreak- Familia-moten argazkiak.
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- Familia-motak ezagutzea eta normalizatzea.- Sexu-orientabideak ezagutzea eta normalizatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Lehen saioa:<ul style="list-style-type: none">- Sarrera gisa, honako esaldi hau esango da: «Familia-mota desberdinak», eta zer iradokitzen dien edo zeintzuk ezagutzen dituzten galdetuko da.- Barruan sexu, adin eta abar desberdinetako hainbat panpina dituen kaxa bat emango zaie.- Haur bakoitzari berak ezagutzen duen familia-mota bat osatzeko eskatuko zaio (familia-motak errepika daitezke).- Talde osoak elkarrekin, osatu dituzten familiei buruz hitz egingo du. Haur bakoitzak bere familia azalduko die taldeko gainerako kideei.- Elkarrizketa ireki baten ondoren, hurrengo saiora arte itxiko da saioa.- Bigarren saioa:<ul style="list-style-type: none">- Dinamikari berriro ekingo zaio eta haurrei zer familia mota osatu zituzten erakutsiko zaie. Hezitzaileak galdetuko die ea beren ustez familiarik falta den.- Erantzuna baiezkoa bada: zein? galdetu eta osatzeko eskatu.- Erantzuna ezezkoa bada: hezitzaileak falta den familia-motaren argazki bat erakutsiko du edo berak osatuko du.

- Hezitzaileak hainbat galdera egingo ditu eztabaida sustatzeko:
 - Ezagutzen al duzue familia-mota hori?
 - Zuen inguruan, badago horrelako familiarik?
 - Zer iritzi duzue familia horiei buruz?
 - Bi emakumek edo bi gizonek elkar maite dezakete gizon eta emakume bikote batek bezala?
 - Bi gizon izan daitezke guraso?

Hezitzaileentzako jarraibideak:

- Hezitzaileak ezer esan gabe behatuko du. Haur guztiek amaitzen dutenean, familia horrela zergatik osatu duten galdetuko zaie.
- Zalantzak argitzeko eztabaida sustatu.
- Playmobilik ez badago, beste edozein panpinek balio dute.

Ebaluazio-adierazleak:

- Ebaluazioa egiteko, oso ariketa erraza egingo da, tailerraren helburua haurrak sentsibilizatzea baita. Horretarako, dena bildu eta panpinen kutxa erakutsiko zaie berriro, eta guztion artean eraiki ditugun familia-motak berriro egiteko eskatuko zaie. Tailerrean landu diren familia mota guztiak osatzea lortzen badugu, helburua beteta dago.

Material-estekak:

Familia-moten irudiak:

<https://www.freepik.es/fotos-vectores-gratis/familias-diversas>

Hitz-pasa

Hitz-pasa
Adina:
10-12 urte
Aurreikusitako denbora:
Ordu eta erdi .
Materialak:
<ul style="list-style-type: none">- Txartelak (eranskina)- Arbela eta errotuladoreak edo klariona
Helburuak:
<ul style="list-style-type: none">- LGTBIQA+ kolektiboarekin lotutako terminoak errepasatzea.- Sexualitate positiboarekin lotutako terminoak errepasatzea.
Garapena:
<ul style="list-style-type: none">- Hasteko, arbelean uztai bat idazten da alfabetoarekin, telebistako Pasapalabra saiokoaren antzera.- Ondoren, talde txikiak antolatuko dira. Horien tamaina aldatu egin daiteke parte-hartzaileen kopuruaren arabera. Talde bakoitzari izen bat aukeratu eta arbelean idazteko eskatuko zaio.- Jokoaren arauak azalduko zaizkie:<ul style="list-style-type: none">- Talde bakoitzeko ordezkari batek txartel bat (alfabeto-ordenan jarrita) hartu beharko du besteen aurrean, eta mimika bidez, arbelean marraztuz edo deskribatuz (baina hitz batzuk saihestuta, Tabú jokoaren antzera) gainerakoek bertan zer jartzen duen asmatzea lortu beharko du.- Guztiek asma dezakete hitza. Asmatzen badute, puntu bat lortuko dute taldearentzat, eta arbelean idatziko dute aukeratu duten izenaren ondoan.- Lehenengo txanda osatuko da talde bakoitzak txartela gutxienez behin hartzen duenean. Hurrengo txandarako, taldeek beste ordezkari bat izendatu behar dute.- Txandak errepikatu egingo dira, uztaia osatu arte.
Hezitzaileentzako jarraibideak:
<ul style="list-style-type: none">- Taldeak lehiakortasuna ondo eramaten ez badu, jokoaren alderdi hori alde batera utzi eta elkarlaneko joko bihur daiteke.- Norbaitek bere taldearen ordezkari izan nahi ez badu, ez da behartuko.

- Txartelak berrerabil daitezkeen material gogorrekin egitea gomendatzen da.

Ebaluazio-adierazleak:

- Haurrek erabilitako hizkuntza eta keinuak behatu.
- Jokoan agertzen diren terminoen ezagutza-maila behatu.

Eranskina

Txarteletarako hitzak

Gaztelania		Euskara	
A	Asexualidad	A	Asexualitatea
B	Bisexualidad	B	Bisexualitatea
C	Cis-género	D	Demisexualitatea
D	Demisexualidad	E	Emozioak
E	Emociones	F	Familia
F	Familia	G	Gay
G	Género	H	Heterosexualitatea
H	Heterosexualidad	I	Intersexualitatea
I	Intersexualidad	J	Jokoa
J	Juego	K	Kink
K	Kink	L	Lesbianismoa
L	Lesbianismo	M	Maitasuna
M	Monogamia	N	N dauka: Konfidantza
N	No-binario	O	Onarpena
O	Orientación del deseo	P	Polimaitasuna
P	Poliamor	R	R dauka: Erromantikoa

Q	Queer	S	Sexua
R	Romanticismo	T	Trans
S	Sexo	U	Uzkia
T	Trans	X	X dauka: Sexu-harremanak
U	Útero	Z	Zis-generoa
V	Vulva		
W	-		
X	Contiene la X: Relación sexual		
Y	Contiene la Y: Gay		
Z	-		

- Zerrenda hau iradokizun bat baino ez da, hezitzaileen esku geratzen da materiala bere taldera egokitzea.

